



GARMENDIA

Tejas y cubiertas S.L.

VACSOL - WRR TRATAMENDUA EGURRARENTZAT

OHOL ETA ALTZARIEN
TRATAMENDUA

Edozein motatako teiltatuak
egiteko prestatuak,
komunitateak, baserriak,
txaletak eta abar

AZKENEKO AURRERAPEN GUZTIAK

AURREKONTUAK
NEURRIRA



Maioz industrialdea, 25-26

ORDIZIA

Tel. : 943 161 032 / Faxe: 943 160 842



29€

bonardi
monturak

...bat aukeratzea bakarrik gelditzen zaizu

Eskaintza 2003/01/07tik. 2003/02/28 arte

R.P.S. N° 164/99 I.L.G.

MULTIOPTICAS

beti zurekin



BERGARA
Tel. 943 76 15 75



ARRASATE
Tel. 943 79 29 95



ORDIZIA
Tel. 943 88 99 88



EIBAR
Tel. 943 20 05 22



ERRETERIA
Tel. 943 51 78 11

Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierritarrak Kultur Elkartea
Dorre-etxea, 1 (Postetxe gainean)

124 posta-kutxa ORDIZIA

Tfnoa: 943 88 96 12

Faxa: 943 88 27 19

Posta elektronikoa:

goierritarra@topagunea.com

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Erredakzioa: Iñaki Gurrutxaga

Maketazioa: Mikel Albisu

Publizitatea: Argider Mujika

Zenbaki honetako kronista eta

kolaboratzaileak: Joseba Telleria, Aitor Calvillo, Xabier Urteaga, Nekane Altuna, Edurne Albizu, Edurne Sorraluze, Agurtzane Bikuña, Aitziber Murua, Mari Flor Mendizabal eta Aimar Maiz.

Fotokonposizio eta maketazioa:

Goierritarra

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga 9. Oñati)

Tirada: 7.000 ale

SSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Eusko Jaularitzako
Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta

GOIERRIKO UDALEK
diruz lagundutako
aldizkaria



Goierri 2005 ideia berrien VI. lehiaketa

'Linue Zegama' proiektuak irabazi du Goiekik sustaturiko sariketa

Goierriko zortzi emakumek garatutako 'Linue Zegama' proiektuak irabazi du Goieki Garapen Agentziak antolatutako "Goierri 2005 ideia berrien VI. Lehiaketa". 9.000 euroko saria jaso dute eta, horretaz gain, beste hainbat laguntza jasoko ditu: lokal bat utziko zaie jarduerari hasiera eman ahal izateko, eta Ehun Artisautza tailer berria abian jartzeko prozesuan aholkularitza eskainiko dio Goiekik. Enpresa hau bakarra da Euskal Herrian, eta 2003ko otsailean edo martxoan ekingo dio bideari.

Abenduaren 20an egin zen Goiekiko bulegoetan sari banaketa. Seigarren ekitaldi honetan, epaimahaiak 13 enpresa-ekimen aztertu zituen eta azkenean Zegaman abian jarritako Ehun Artisautza Tailerrari saria ematea erabaki zuen. Iker Galparsoro Goiekiko gerenteak sari banaketako agerraldian adierazi zuenez, hiru ikuspegi hartu ditu kontuan epaimahaiak

erabakia hartzeko garaian: "Proiektu originala eta handinahikoa izateaz gain, emakumezkoek sustatuko proiektua izan da, galtzen ari den espezialitate bat da ehungintza eta gainera, ustiaketa-aukera interesgarriak eskaintzen ditu".

Bere ohiko jarduera ekonomikoa jorratzeaz gain, ekimen hau turismoaren ikuspegitik erakargarria izan daitekeela aipatu zuten, izan ere, "une honetan ez dago era honetako enpresarik Euskal Autonomi Erkidego osoan". Kooperatiba sortzen denean, 'Linue Zegama' enpresak honako jarduera hauek gauzatuko dituela adierazi zuten: bertan egindako artisau-lanak ekoiztu eta salduko ditu; ehun-artisautzako denda bat irekiko du Goierri eskualdeko artisau guztien produktuak erakusteko eta saltzeko; ehun-artisautzako erakusketa iraunkorra sortuko du eta ehun-artisautzan hezteko zentroa jarriko du abian.

Goierritarra Goierrikan jaso nahi dutenenentzat, posta gastuak ordaintzeko tarifak:

Hego Euskal Herria eta Espainia:
Ipar Euskal Herria eta Europa:
Europaz kanpo:

urtean 12 euro
urtean 24 euro
urtean 36 euro

Carlos Saez de Egilaz beasaindarra atxilotu du Frantziako Poliziak

Carlos Saez de Egilaz Murgiondo ustezko ETako kide beasaindarra atxilotu zuen urtarrilaren 10an Frantziako Poliziak Landesetako Akize hiriaren erdigunean, beste bi kideekin batera. Hirurek atxilotuta unean pistolak soinean zeramatzatela esan zuen Poliziak. Saez de Egilaz, *Kai* ezizenez ezagunagoa, Baltasor Garzon epaileak 18/98 sumarioan auzipetu zuen Xakiren atalean. Aurreko asteburuan mobilizazioak egin ziren Beasainen Saez de Egilazen askatasuna eskatzeko.



Plaka arrotzak kendu dituztela aldarrikatu dute Goierriko Matxinatuek

Goierriko Matxinatuak taldeak GOIERRITARRARA igorritako idazki batean Goierriko hainbat herritan plaka arrotzak kendu dituztela aldarrikatu du. Espainiak eta Frantziak debekua, inposaketa eta ukazioa erabiltzen dutela diote matxinatuek, eta horri aurre egiteko "matxinada indartsu" bat abian jarri behar dela. "Gure herria altxatu egin behar da. Irakaskuntza propio bat bultzatu behar da, euskal selekzioaren alde lan egin, euskaraz mintzatu, etxeko produktuak kontsumitu, EH-NA erabili, komunikabide arrotzei boikota egin", dio Goierriko Matxinatuen idazkiak. Horretarako "bi estatuen legeak desobeditzeko eta kalera ateratzeko" deia egiten dute.

Frantzisko Mitxelena apaiza Beasaingo Arangoiti Egoitzako kaperau izendatu dute

On Frantzisko Mitxelena apaiza Beasaingo Arangoiti Egoitzako kaperau izendatu berri du Joan Mari Uriarte Gotzainak. Izendapena abenduaren 12an egin zen. Sarrera ofiziala berriz, abenduaren 28an. Mitxelena oiartzuarra da baina oso ezaguna da Goierriin, Lazkaon, Beasain eta Olaberrian bere apaizerbitzuak eskaini baititu. Txindoki Institutuko irakasle ere izan zen, orain urte batzuk erretiratu zen arte.



Etxegarateko lanak hil honen bukaeran amaituko dira, azken ordukorik ez bada

Antton Jaime Garraio eta Errepide diputatuak abenduaren 19an Etxegaraten egiten ari diren lanetara egindako bisitaldian adierazi zuenez, Etxegarateko bikoizketaren lanak hil honen bukaeran amaituko dira, azken orduko ezusterik ez bada behintzat. Foru Aldundiak zituen aurreikuspenen arabera, lanak abenduaren erdialdean amaitzekoak ziren, baina lurraren ezegonkortasunak, proiektuaren hobekuntzak eta baliabide teknikoaren gabeziak obra atzeratzea ekarri dute. Ia urte eta erdiko atzerapena du bikoizketak. Hala ere, mendentaren beheranzko zatia abenduaren amaieran zabaldu zuten. Hurrengo alean izango duzue informazio gehiago.

Bikaintasunaren diploma jaso du La Salle San Jose ikastetxeak



Beasaingo La Salle San Jose ikastetxeak 'Erabateko kalitate-Bikaintasunaren konpromezu diploma' jaso zuen azaroaren 21ean Euskaliten eskutik. Ikastetxeko arduradunen esanetan, "urteak dira EFQM ereduari jarraituz, urteko plangintzak, plan estrategikoak, asetze maila neurtzen duten inkestak, prozesu eta lan taldeak eguneroko ogi bihurtu direla". La Salle San Josek bere helburuak finkatuak dituela diote, "eta diploma hau helburu horiek betetzeko eskertze neurria da".

LOINATZ

Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak

☎ 943 88 20 07

Nagusia, 27

BEASAIN



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20

☎ 943 88 87 02

BEASAIN



Kogenerazioko planta berria inauguratu dute Legorretako Etxezarreta fabrikan

Legorretako Etxezarreta paper fabrikan kogenerazio planta berria inauguratu zuten urtarrilaren 8an, lantegiak behar duen lurrin kopurua orain arte baino azkarrago eta modu ekologikoagoan sortzeko helburuarekin. 9,9 megawatt-eko potentzia du planta berriak, eta Euskadiko Energia Erakundearen eta IBERESEren partaidetzarekin eraiki du. Guztira 5,1 milioi euroko inbertsioa egin du. Ehun urte bete berri ditu Etxezarretak, eta planta berriarekin etorkizunera begira jarri direla adierazi zuten enpresako arduradunek. Josu Jon Imaz EAEko Industria sailburua ere bertan izan zen, eta ekologiarene alde egindako apustua goraipatu zuen.

AHTren azterketa geoteknikoak geldiarazi dituzte Beasainen eta Legorretan

Hamar bat lagunek Abiadura Handiko Trenaren (AHT) azterketa geoteknikoak egiteko lanak geldiarazi zituzten abenduaren 20an Legorretako Berostegi auzoan eta Beasaingo Erauskin auzoan. Ekintza istilurik gabe izan zen. Hamar ekologistek *'Desarrollismo txikitzailea stop'* zioen pankarta zabaldu zuten, eta lanean ari ziren langileei ohar bat eman zieten, AHTren lanak lehenbailehen gelditu behar direla adieraziz, *"Euskal Herriko gizartearen sektore handi batek aspalditik eskatzen duelako"*. AHTren lanak *"atentatutzat"* jo zituzten, eta haren kalte ekologiko eta sozialak handiak izango direla gaineratu. Eusko Jaurlaritzaren eta Madrilgo Gobernuaren jarrera salatu zuten ekintzaileek, gizartearen eskaerari muzin egiten diotelako. Protesta egileek ziurtatu zuten aurrera segituko dutela protestaldiarekin agintariekin lanean jarraitzeko asmoa duten bitarte guztian.



Xegundo Galarza musikari eta konpositore segurarra hil da Lisboan

Xegundo Galarza Arako musikari eta konpositore segurarra hil zen Lisboan urtarrilaren 4an, 78 urte zituela. Galarza 1924an jaio zen, eta gazte gaztetatik munduko hainbat lekutan bizi izan zen, 1949. urtean Portugalen bizitzen jarri zen arte. Piano, armonia eta konposizioa ikasi zuen Bilboko kontserbatorioan, baina Lisboan lortu zen arrakastarik handiena, Orkestra Handia sortu baitzuen han. Harrezkero Portugaleko eta Amerikako Estatu Batuetako hainbat telebista saiotan parte hartu zuen Galarzak. Berrogei diskotik gora grabatu zituen Galarzak, eta sei film luzetarako eta hogeiki dokumentaletarako fondoko musikak sortu zituen.

Joxemiel Barandiaran ikastetxea saritua

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Joxemiel Barandiaran ikastetxea eta Pako Urrestarazu kirol arduraduna saritu zituen joan den abenduaren 20an. Donostiako Kurssaleko Kubo Txikian ospatu zen ekitaldian, urtean zehar kirolaren munduan, arrazoi batengatik edo besteagatik nabarmendu diren kirolari gipuzkoarrak izan ziren sarituak. Horien artean zen Pako Urrestarazu ere, urte guztietan herriko ikastetxean kirolaren sustapenean egin duen lana goraipatu eta publikoki errekonozituz.

Irati Goikoetxea bertsolari beasaindarra bi bertsopaper lehiaketan irabazle atera da

Irati Goikoetxea beasaindarrak bi bertsopaper lehiaketa irabazi berri ditu, biak ere gazteen mailan. Lehendabizikoa Kabir Goitia sariketan, 'Uhagon kalea 8, 1. B.' (Bilboko ikaspi-suko gora-beherak) lanarekin eta bigarrena, Sorluzeko bertsopaper lehiaketan 'Goierritik Bilbora' sortarekin.

Alpe
SUKALDE ALTZARIAK

sukalderik goxoenak

Mariarats 10 Beasain
Tfno/Fax 943 88 86 84

PSIKOLOGI KLINIKOA



Helduen,
umeen, bikoteen
eta sexologi
tratamenduak

Jose Ramon Pato Prieto

Psikologian lizentziatua

Elkargokide zenbakia: E-2644

RPS: 42095

JM Arana, 1 - 2. esk. esk.

AURRE ZITA

943 887 221

610 020 041

BEASAIN



Maider Urretabizkaia lazkaotarrak irabazi du Aterpeko XI. Pintura lehiaketa

Maider Urretabizkaia lazkaotarrak irabazi du Beasaingo Aterpe tabernak antolaturiko XI. Pintura lehiaketa. Gipuzkoako eskualde gehienetatik etorritako 30 lan aurkeztu ziren lehiaketa honetara, eta epaimahaia osatu zuen bikoteak lan zaila izan zutela adierazi zuen; batetik, lehiaketa honek ospea lortu duelako, eta bestetik, aurkeztu diren lanak maila ona erakutsi dutelako. Urretabizkaia Martin Arruebarrenak egindako brontzezko eskultura bat jaso zuen sari moduan. Aurkeztutako beste lanak erakusgai egongo dira Aterpe tabernan urtarrilaren 18an hasi eta otsailaren 14a bitartean.

Iñaki Olazabal zumaiarrak irabazi du 'I. Goiart 2002-Ordizia Saria' lehiaketa

Iñaki Olazabal zumaiarrak irabazi zuen Arte plastikoen eta ikus-entzunezkoen I. Goiart 2002-Ordizia Saria 'Aterpea' izeneko eskulturarekin. Rikardo Ugarte eskultoreak eta Jean Francois Larralde Getariko Museoko zuzendariak osatu zuten epaimahaia, eta 3.000 euroko saria Olazabali ematea erabaki zuten "eskulturari emandako tratamendu tekniko egoikiagatik". Bigarren saria ere Zumaiara joan zen. Manu Urangak lienzoaren gainean eginiko 'Sin titulo' obra aurkeztu zuen, eta 1.500 euroko saria jaso zuen. Edurne Imaz lazkaotarrak jaso zuen 900 euroko hirugarren saria. Imazek 'Soineko elikatzaile protesikoa' izeneko lana aurkeztu zuen lehiaketara. Sari horiez gain, epaimahaiak 600 euroko beste bat banatu zuen. Azken hau Ordizian bizi den Patxi Epelde-ri egokitu zitzaion 'Ate leiho argia' lan koloretsuarengatik. Guztira mota guztietako 109 lan aurkeztu ziren lehiaketa honetara, eta epaimahaiak lanen kalitatea goraipatu zuen.



411 lan aurkeztu dira Segura Irratiko I. Itaka eskutitz lehiaketara

Abenduaren 28an eta urtarrilaren 4an banatu ziren Segura Irratian I. Itaka Eskutitz Lehiaketari dagozkien sariak. 411 lanetatik hamalua eskutitz izan ziren sarituak. Lehen hezkuntzako neska-mutilek Olentzerori idatzi behar izan zieten eskutitza, eta Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoko ikasleek berri, Urte Berriari. Lanen aniztasun eta kalitatearen ondorioz, aurikusi baino sari gehiago banatu behar izan zituzten azkenean. Hona hemen irabazleak:

3. eta 4. mailan:

Janire Garmendia segurarra (Laiotz)
Iñaki Dorronsoro ataundarra (Joxemiel Barandiaran)
Xabier Intxausti idiazabaldarra (Aita Iparragirre)
Naroa Insausti idiazabaldarra (Aita Iparragirre)
Asier Insausti ordiziarra (Urdaneta)

5. eta 6. mailan:

Irati Aldaz beasaindarra (Andramendi)
Mikel Dorronsoro ataundarra (Joxemiel Barandiaran)
Aitor Muruamendiarrak lazkaotarra (San Benito)
Itsasne Liebana lazkaotarra (San Benito)

DBH 1. eta 2.:

Ainara Jimeno beasaindarra (La Salle)
Leire Etxabe ordiziarra (Oianguren institutua)

DBH 3. eta 4.:

Joana Azketa zaldibiarra (Oianguren institutua)
Maider Gandarias ataundarra (San Benito)

Batxilergoan:

Ainara Idigoras zegamarra (Txindoki-Alkartasuna institutua)

Estraineko esperientzia honek izandako arrakasta eta eskutitzetan azaleratutako balore eta aberastasuna ikusita, Aste Santurako bigarren lehiaketa bat antolatzeke asmoa dute Itaka irratsaioko arduradunek.


SILVIA MIRAS CASASAYAS
ODONTOLOGOA

TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)

berriz aranburu
ERROPADENDA

Nagusia, 8

☎ 943 88 04 53

BEASAIN

Ibon Gurrutxaga zaldibiarra nagusi Gipuzkoako klub arteko txapelketan



Ibon Gurrutxaga 19 urteko pilotari zaldibiarra irabazi zuen abenduaren 20an Beasaingo Antzizar kiroldegian jokatu zen Gipuzkoako klub arteko txapelketa. Gurrutxaga Real Sociedad kluba ordezkatzuz aritu zen eta 22-14 gailendu zitzaion Añorgako klubaren izenean jokatu zuen Oteiza zarautzarri. Buruz-buruko partiduetan sakeak duen garrantziaz baliatu zen Gurrutxaga irabazteko, izan ere, hamar tanto sartu zizkion sakez Oteizari. Gurrutxagaren laguntzaile lanetan Aratz Mendizabal pilotari zaldibiarra aritu zen, eta azken honek altxatu zuen klubaren izenean jaso beharreko saria.

Iñaki Azurmendi arriarandarra bigarren Gipuzkoako aizkolari txapelketan




Iñaki Azurmendi aizkolari arriarandarra bigarren postua eskuratu zuen abenduaren 13an, Santa Lutzi egunean, Urretxuko Ederrena pilotalekuan jokatu zen Lehen mailako Gipuzkoako aizkolari txapelketan. Lehia hasi aurretik norgehiagoka Olasagasti eta Peñagarikanoren artean egongo zela uste zuten aditu eta ikusle-

ek, baina ezustean, Azurmendik lan bikaina egin, eta lanak bukatzeko Olasagastik baino minutu erdi bat gehiago bakarrik behar izan zuen. Hamar enbor ebakitzeko lana zuten finalean aritu ziren sei aizkolariek, eta arriarandarra seigarren enborra ebakitzen lehena izan bazen ere, azkenean, 29 minutu eta 25 segundu behar izan zituen amaitzeko.

Denboraldi bikaina egiten ari dira Goierriko ziklo-kros txirrindulariak



Goierriko ziklo-kros txirrindulariak denboraldi bikaina egiten ari dira. Helduen mailan, Zuhaitz Ayuso itsasondoarrak Gipuzkoako txapelketa irabazi zuen Aizarnazabalen, abenduaren 22an. Egun berean, jubenil mailan, Asier Mujika atarra zen garaile eta kadete mailan Egoitz Berasategi ormaiztegiarra nagusitu zen. Bestalde, Asturiasko Sotrondio herrian jokatu zen Espainiako txapelketan Gorka Izagirre txirrindulari ormaiztegiarra nagusitu zen, Egoitz Berasategi bere herriararen aurretik.



Josune Bereziarturi 2002ko Gipuzkoako kirolari onenaren saria eman diote

Ordizian bizi den Josune Bereziarturi eskalatzaile lazkaotarra-ri iazko Gipuzkoako kirolari onenaren saria eman zioten abenduaren 27an. Donostian egin zen bozketan Alberto Iñurategi mendizalearen, Oier Aizpuru piraguistaren eta Aitor Gonzalez txirrindulariaren aurretik geratu zen Bereziarturi. Josune pozik agertu zen eman zioten sariarekin eta "orain arte eman dioten garrantzitsuen" dela azpimarratu zuen. Epamahaiak adierazi zuenez, eskalatzaile lazkaotarrak darman ibilbide oparoa eta iazko urtean Suitzako Saint Loup herrian kateatu zuen Baing du Sang 9a bidea izan dira sari hau Bereziarturi emateko arrazoi nagusiak.

ARRIETA

JATETXEA

☎ 943 88 00 02 OLABERRIA

Ezkontzak,
jaunartzeak,
bataioak...
era guztietako
ospakizunak

SOLOZABAL AUTO-ESKOLA

Promozioa: auto ordua 12 euro

Aita Urdaneta ORDIZIA
☎ 943 88 72 76

Euskal Zinema Laburra

Badirudi herri txiki eta zatikatu honek irudikatzen dituen polemikak amaitu ezin direla, agian, oraindik benetan hasi ez direlako. Horietako bat, tarteka taularatu eta maiz kritikatzeko duguna, euskal zinemaren inguruko eztabaida faltsua da. Nahiko laguntza publikorik jasotzen ez duela, azpiegiturak falta direla, euskal filmak, bikoiztuak ez ezik, telebista pantailatxoan urriz ikusten direla, film laburrak inoiz ikusteko aukerarik ez dagoela... eta abar tamalgarri bat. Arrazoiak arrazoi, euskal zinema, derrigorrez, fikzio hutsa baita. Euskal Herrian, lege arrotzen eraginez bananduak eta debekaturiko batasun politikorik gabe, euskaldunok ez dugu ez askatasunik, ezta eskubiderik ere, gai hauei buruzko erabakiak hartzeko. Hala ere, euskal zinemarik ez dagoela kritikatzeko bide anitz egon arren, kritika horiek azalekoak badira, aurrera egiteko beste aukera bat galdu eta, ezinbestean, baliorik gabeko zerora bueltatzen gara.

Polemika antzuen bidetik, euskal kulturaren izenean edo, egungo kritikari sutsuek erakunde publikoen ezgaitasunak eta laguntza faltak nabarmen dituzte behin eta berriz. Baita okerreko bidetik, kultura eta industria zinematografikoa zaku berean sartu eta eliza-politikoaren babesean mantendu nahi izaten dituzte biak. Publikotasunaren magalean soilik, ordea, edozein adierazpen kultural, euskal zinema barne, ez da sekula Arte bilakatuko. Egun, zinema industria boteretsua da mundu osoan, gure herria barne. Zinemak urtero milioika etekin eta fruitu aipagarri gutxi batzuk eman ahal izateko, laguntza publikoaz gain, enpresa pribatuaren apustua, inbertsioak, konpromisoa eta diru iturriak behar ditu. Ez dago beste aukerarik: zinema gustukoa badugu, euskal filmak zinema aretoetan ikusi nahi baditugu, euskal ekoizle, banatzaile eta erakustaretoen industria sare propioak ezinbestekoak dira. Kalitatea hemen da; lanerako grina bada, go, eta, ikusleok hala nahi badugu, bertako filmak non-

nahi ikusi, gozatu eta edozein herrialde eta hizkuntzatan ulertu ahal izango dira. Zinemak ez baitu hizkuntzarik, zinema irudien elkarriketa mugikorra da. Irudiek ez dute hitzen beharrik, ilunpeko argi izpien artean bizi dira.

Egun, euskal zinema fikzio hutsa da, jakina, erakunde, enpresa eta zinezaleen laguntza osoa beharrezkoa duena. Aitzitik, euskal film laburrek beste itxura bat, beste antz bat eta bestelako esperantza ematen du. Inbertsio industrial izugarririk gabe, euskal zuzendari gazteak ari dira, bertan, zinemagintzaren esparru honetan, lana eta proposamen bikainak egiten. Iazko uzta harrigarria ikustea besterik ez dago.

Azkenaldian aukera onak izan ditugu euskal film labur apartak ikusteko. Kimuak euskal kultura departamentuko banaketa programaren bidez eta zine emaileen konpromisoari esker (Gasteiz, Ermua, Irun, Bilbo, Lizarra...), fikzio bat gauzatzen ari dela dirudi. Euskal film laburren haritik, maila handiko zinema

posible dela ikusten ari gara. Aste honetan bertan, Beasainen, Goieniz zineklubaren eskutik beste aukera bat dugu. Film laburren erakusleihen horretan, bertako eta kanpoko lanak aurkeztuko dira; euskaraz, erdaraz eta hitzik gabeko lanak ere ikusgai izango ditugu. Edozein moduz, ahalmena, irudimena eta zeresana badago; garena mundu osoari kontatuz abiatuko gara, poliki. Polemika hutsaletara bueltatu gabe, bide laburretik, euskal zinema propio baten bila.

Ramon Lizarraga (Beasain)

IBAi-ONDO
AROSZTEGIA




DOAN!
DVD erreproduktzailea

Sofak, altzari mazizoak, haritezkoak, gerizekoak, gaztainondoak

multisac
Familia guztientzat oparia
Multisac kofexia erosita eraman ezazu
doan 200 euroko balioa duen
DVD erreproduktzailea

☎ 943 16 40 40 faxa: 943 16 47 47
Poltsikoko telefonoa: 639 631 640
Antzizar-Katea, 5 BEASAIN



MUGICA 19

MUJKA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19
☎ 943 88 11 94
ORDIZIA



AUZOKI
Komunitateen administrazioa

Kol. Zenb. 599
Urdaneta 52-behea. Ordizia.
Tel.: 943 087 486
635 703 671 / 635 702 570

- Jabekideen komunitatea osatzea
- Komunitateen kontabilitatea
- Akten idazketa
- Aurrekontuen eskaera
- Aholkularitza legala
- 24 orduko asistentzia
- e.a.

Hegaztien mundura gerturatu nahian

Jada askok eta askok jakingo duzuen bezala, Goierrin ere hasi dira hegaztieko zaletasuna dutenak elkar ezagutu eta antolatzen. Bilerak hilabete bakoitzaren hiru garren asteazkenean, Goimen Elkarteko lokalatan (Santa Maria Kalea, 4. Ordizian) egiten dira. Bertan elkartzen garenon egitasmoa, norberak duen mailatik, ezagupideetan aberastea eta gustuko zaizkigun hegaztien azterketa edo behaketak, lagun arteko tarte jatorrean igarotzea da. Besteen artean, mendi, itsaso, urmael, harkaizti eta abarretara "bisitak" egitea aurreikusten da, hegaztien identifikazio eta horien ohiturak ezagutzeko. Horrekin batera, Goierrin ikastaro edo hitzaldiak eskaintzeko asmoa dago, diapositiba emanaldi, argazki esposizio edo antzeko jardunaldiekin bat.

Taldeak izena zehazteke badu ere, doze-na erdi bat bider elkartu da eta azalduko ilusio eta gogoak aurrerako pausuak ziurtatuko dituelakoan gaude. Orain artean, Txingudira irteera egin izan da eta elkartokian aldizkari, liburu eta CD-ren batzuk ere badaude interesik duenarentzat.

Abenduan, bisita interesgarri eta aberastza izan genuen. Guk horrela eskatuta Ordiziako seme den Joxe Mari Faus, Aranzadiko ornodun sekzioaren arduradun izandakoarekin (orain jubilatua baitago) elkarriketatzeak aukera izan genuen. Gai asko eta zabalki hitz egin zirenez, berriz elkartzeko gogotan gaude. Gure aldetik zuei ere inbidia pixka bat eman asmoz, eta elkartzera animatu zaitezten bertatik jasotako zenbait kontu azalduko dizkizuegu:

Goierrin eta lurralde guztian orokorrean faunaren areagotze nabarmena da. Orain 30 urte erreken kutsadura, industrietako emisio eta isuriak, ingurumen gaitan legedi faltak...bertako bioaniztasunean egundoko jipoia izan zuen. Egun berriz, koartzak, ubarroak...ere azaltzen zaizkigu eskualdean. Ahateen kasua ere hor dago, nahiz azken horiek "zimarroiak" izan, instinto gutxi eta gizonaren presentziara ohi-tutako nahasketa bat dira. Koartzen kasuan nahiz eta han hemenka 1, 3 eta 5eko taldetan ikusi, horiek ez dute bertan kabirik



egiten. Normalki gaztaro fasean, nolabaiteko eremu berrien esplorazioan dabilzanak dira. Kontutan hartu, bai ahateak, bai koartzak ur geldietan bizi direla, guztiz ezaugarri desberdineko ekosistemetan, eta ez gure erreka motz, estu eta emari aldakorretan. Hegazti gazte horien presentzia aldakorra izaten da urtetik urtera, elikagai iturrien arabera eta baldintza klimatikoen baitan, horiek onak izaten direnean explosio demografikoak ematen baitira. Gero esplorazioan dabilzala kokagune egokirik aurkitzen badute, bertan ezartzearen aukera ematen da...

Goierritarrok aparteko guneak ditugu "BirdWatching"-a edo hegaztiak ikusteko. Batik bat Aralar aldean, eta pase garaian Gaintza, Alzaga, Itsasondo, Lazkaomendi, eta Zegama aldean, besteak beste. Dena den, gure lurralde aldapatsu eta basoz betetako honetan hegaztiak identifikatzeko belarria, edo hobeki esanda entzumena landu behar izaten da. Horretarako hegazti bakoitzaren kantu mota desberdinak ezagutu behar izaten dira, poliki-poliki lantzen joaten den ahalmena da eta informazio iturri garrantzitsuan bilakatzen da. Esate baterako Okil Beltza oso zaila zaigu ikustea hemen baina duen kantua oso berezia da eta bertan badagoela ziur gaude.

Esan bezala, hiru ordu labor pasata gogotsu gaude beste baterako. Zuek ere, gazte zein guraso, animatzen bazarete hemen izango gaituzue, irteeraren bat edo ornito pedagogian zaletzeko.

Goierriko Hegaztien Ezagutzarako Taldea

GARIAIAN GARAIKOA

✓ Gazez eta zuhaitzetan ibiltzen den **Muxar grisa**, gorputzeko gantz piloa ziurtatu ondoren azaro partean hasitako neguko loaldi luzean jarraitzen du, beti ere erreserba gutxiagorekin.

✓ **Untxiak**, urtarrean has-ten du beren ugaltze garaia, eta ekainera arte luzatuko da. **Erbiarena**, berriz, urtariletik uztaile artekoa izaten da, eta unxiak 30 eguneko gestazioa duen bezala, honek 40 bat egunekoia izaten du.

✓ **Azeriak** ere, urtarrean du bere jardura produktiborik nabarmenena, zelo garaian da, abendutik otsailera bitartekoa izaten da apareamendu garai hau. **Basurdeetan** ere beste horrenbeste gertatzen da, nahiz azken honek zela urtarrean amaitu.

✓ Gazez eta uretan aritzen den eta aurkitu (deskubritu) berria den **Muturluze piri-niarraren** (Desmán de los Pirineos) umaldi garaia da urtarila. Honen zela, negutik hasi eta udaberrira artekoa izaten da.

✓ Jadanik **orkatzak** beren adakera (adarrak) botata izango dute eta azpitik berria sortzen ari zaie. Horiek iletsuak izaten dira, pelusa modukoarekin, eta enborretan igurtziz garbitzen dituzte adarrak. Horiek beste-entzako ere usainezko seinale izaten dira...eremua eta bestelako mezuak adierazten dituzte.

Landar Lan taldeak egindako orrialdea

Taldean parte hartu edo gairen bat aportatu nahi baduzu: ☎ 943 16 12 44

Duela urtebete posta gastuak ordaintzeko laguntzaile kanpaina martxan jarri genuen

GOIERRITARRA-ren harpideen ia erdiak eman diozue laguntza aldizkariari: mila esker


Iazko otsailean, urtean 12 euro eskatuz, laguntzaile kanpaina martxan jarri zenetik 2.821 laguntzaile lortu ditu GOIERRITARRA aldizkariak. Orduan SOS deialdia nabarmedu bagenuen ere, oraingoan, guztioi eskerrak emateko garaia iritsi da.

Duela urte bete GOIERRITARRA aldizkariak bere irakurle-enganara jo zuen SOS dei bat eginez. Posta gastuak bikoiztu egin zirela eta, aldizkariaren iraupena zalantza jarri zen. Harpideei borondatezko laguntza eskatu zitzaizuen, urtean 12 euro. Horretarako lankide bat aritu da GOIERRITARREN harpide guztie, edo ahal izan direnei, etxera deitzeko.

Laguntza eskatzearen arrazoia

Posta gastuen bikoizketa izan zen GOIERRITARRA aldizkariaren bizi iraupena kili-kolo jarri zuena. Iazko urtarrilean albiste horrekin topatu ginen eta horrek zera esan nahi izan du GOIERRITARRA aldizkariarentzat: 2001. urtean posta zerbitzuan 19.800 euro (3.300.000 pezeta) gastatu baziren, 2002.ean 36.000 euro (6.000.000 pezeta) gastatu direla.

Hamabi urteotan, dohainik banatu izan da GOIERRITARRA aldizkaria. Orain arte posible izan du harpideei ezer eskatu gabe, hamabostero milaka etxeetara aldizkaria dohainik banatzea. Ezusteko igoera handi honekin, ordea, ezinezkoa zitzaigun ordura arte bezala, GOIERRITARRA dohainik banatzea.



"Eguneroko ogia, ogi bereziak eta pastel ezin hobeak"



K. Nagusia 35 Elosegi, 14 Sta. Maria, 19
 ☎ 943 88 77 58 ☎ 943 88 72 79 ☎ 943 16 00 44
 BEASAIN LAZKAO ORDIZIA

VOLVO



TOYOTA



ŠKODA

Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

**Autoen salmenta
 Mekanika eta
 elektrizitatea**

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
 ☎ 943 88 17 00 - 943 88 17 04
 BEASAIN

UNTXUNDEI

garajea



OSINALDE

karrozategia

☎ 943 88 28 21

☎ 943 16 07 06

ORMAIZTEGI

Laguntza eskatzea

Esku artean genuen arazoa zela eta bi neurri hartu ziren:

1.- Goierriko harpideei borondatezko diru-laguntza eskatzea. Laguntza urtean 12 eurotakoa da eta eman ez duenak ere aldizkaria etxean jasotzen jarraitzen du.

2.- Goierriz kanpoko harpideek derrigorrez posta gastuak ordaindu behar dituzte aldizkaria jaso ahal izateko.

Ondorioak

Iazko urtean zehar ia alero atera genuen laguntzaile egiteko txartela. Borondatez, gutxi gora behera harpideen %10ak bidali duzue txartel hori. Telefonoz deitu ondoren, berriz, %50 inguruk eman du laguntza. Herri txikitian gehiago eta handietan gutxiago, herri handiago horietan arazoak izan baititugu harpide guztien telefono zenbakiak lortzeko.

Lan horrek harpidedun zerrendan txukunketa egiteko balio izan digu: oker zeuden helbideak zuzendu, bi aldizkari jasotzen zituzten etxeetara bakarra bidali, inor bizi ez den etxeetara bidaltzetik utzi...

Beasaingo Udaleri eskerrak

Beasaingo Udalak laguntza berezia eman digu aurtegoan. Aldizkariaren beharrak asetzeko Beasainen lortu beharreko diru kopurua bera gain hartu zuen. Ordiziakoak ere berdina egiteko asmoa azaldu zuen.

Goierri Lanbide eskolako ikasleen ekimena

Goierri Lanbide Eskolako ikasleek, beraien ekimenez, bakoitzak euro bat eman zion GOIERRITARRA aldizkariari. Eskerrak horiei ere.


Goierriz kanpoko harpideetan garbiketa lana nabarmena izan da. Aldizkaria dohainik izateak Goierriarekin inongo loturarik ez zuten harpide asko izatea ekarri zuen, baita batere interesik ez zuten hainbatek etxean jasotzea ere. Orain ordaintzen dutenek bakarrik jasotzen dute GOIERRITARRA, benetako interesa dutenek.

Harpide zerrendako garbiketa horiek direla eta, 2002 hasieran genuen 8.300 aleko tirada 7.000 aleetara jaitsi da.

Oraindik garaiz zabilatzate

Gure deia jaso ez duzuenok, oraindik ere garaiz zabilatzate, inoiz ez baita berandu zuen kontu korrante zenbakia GOIERRITARRARI eman eta 2003an aldizkariaren posta gastuak ordaintzeko laguntza emateko, posta gastuak ez baitu behera egingo.


Eskura ordaindu zenutenok, edo GOIERRITARRAREN kontu korrantean dirua sartu zenutenok, aurrean ere berdina egitea eskertuko genizuke. Are gehiago, zuen kontu korrantea emango bazenute, denontzat errazago.



Laguntzaile kanpainaren emaitza

Herria	Harpideak	Laguntzaileak	Ehunekoak
Altzaga	19	10	% 52,6
Arama	25	17	% 68,0
Ataun	357	209	% 58,5
Beasain	1.334	543	% 40,7
Ezkio-Itsaso	60	9	% 15,0
Gabiria	69	47	% 68,1
Gaintza	25	15	% 60,0
Idiazabal	421	258	% 61,2
Itsasondo	92	49	% 53,2
Lazkao	689	369	% 53,5
Legorreta	180	20	% 11,1
Mutiloa	36	19	% 52,7
Olaberria	114	52	% 45,6
Ordizia	1.020	384	% 37,6
Ormaiztegi	218	97	% 44,5
Segura	280	176	% 62,8
Zaldibia	286	155	% 54,2
Zegama	301	169	% 56,1
Zerain	45	28	% 62,2
GOIERRI	5.571	2.626	% 47,1

Harpidedun kopuruari Goierriz kanpokoak eta Goierriko dena, taberna eta industriakoak gehitu behar zaizkio gaur egungo 6.900 harpideetara iristeko.



ondoeta

© 943 88 31 02 - 943 88 74 51

Faxa: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA

ALTZAIKUZKO ATEAK:
AUTOMATIKOAK,
BASKULANTEAK,
MARATILDUNAK,
STANDARRAK,
ETA ABAR.

Salustiano Jauregi zaldibiarrek 2003ko eguraldia iragarri du: "Ez dut telebistako eguraldian sinisten"

Salustiano Jauregi zaldibiarra bezalako aitona gutxi izango dira Goierriin. Garai bateko bizitzarako eguraldia beti izan da erreferentzia, baina Salustianorentzat eguneroko ogia da. Hala, komunikabideetako eguraldi iragarpenak hankaz gora jarri, eta bere iragarpen modu propioan sinisten du.

Salustiano Jauregi amak erakutsi omen zion eguraldia-
ren iragarpena egiten. "Seni-



deek-eta ez zuten ikasi nahi izan, baina nik amari kasu egin, eta eguraldia asmatzeko modu honi eutsi egin diot", azpimarratzen du. Illo-
bek ere ez omen dituzte aint-
ztat hartzen bere esanak, eta

pena sentitzen du horregatik.

Modu berezia du oso ira-
garpena egiteko: "Abuztuko
13tik 24ra bitartean egiten
duen eguraldia hartu beharra
dago kontuan datorren urte-

ko eguraldia asmatzeko; ale-
gia, abuztuaren 13an egiten
duen eguraldiak datorren ur-
teko abuztuan egingo duena-
ren berri ematen du, abuztua-
ren 14koak irailekoa, 18koak
urtarrilekoa eta horrela", ze-
haztu du.

Salustianoaren arabera, na-
turaren legeari erreparatu be-
har zaio eguraldiak izango
duen joeraz hitz egiteko. Ha-
ren ustez, ilargia, haizea, ani-
maliak, zuhaitzak... hartu be-
har dira aintzat, eta ez telebis-
tan hainbeste aipatzen duten
tenporei begira egon. Horre-
xegatik dio ez duela telebista-
ko eguraldian sinisten.

Urtarrila-Ilbeltza

Hego haizea, leuna. Ipar ekial-
dekoa eta iparrekoa ere bai.
Urte hasieran trumoi giroa na-
gusituko da, baina hilaren erdi
aldera haizea ipar ekialdera jo-
ango da, eta bukaeran ipar al-
dera gogor.

Otsaila

Hilaren hasiera gogorra izango
da, baina erdi aldera goxatu
egingo du. Bukaera izotza
izango da.

Martxoa

Hasiera trumoisua izango du
hil honek. Erdialdera beheko
lainoak sartuko dira, eta buka-
era aldera ipar ekialdeko hai-
zea nagusituko da. Orokorre-
an, ipar haizea, euria eta hotza
egingo du.

Apirila

Euri asko botako du hilaren
hasieran, eta gero lainoek eta
xirimiriak jarraituko diote.
Ipar haizea eta ipar ekialdekoa
nagusituko dira.

Maiatza

Hilabete euritsua izango da
hau ere. Lainoak eta xirimiri
izango dira jaun eta jabe. Ipar
ekialdeko haizeak gogor joko
du, eta hilaren hasieran men-
dietan elurra botako du.

Ekaina-Garagarria

Ez da espero bezain eguzki-
tsua izango. Hilaren hasieran
eguzkia tarteka aterako da, eta
ekialdetik datorren haize naha-
sia izango da. Erdi aldera argi
uneren bat sumatuko da, baina
San Joan bezperatik aurrera
euria botako du gogotik.

Uztaila

Trumoi giroa nabarmenduko
da. Haizeak ipar eta ipar ekial-
detik joko du. Belarra ontzeko
egun gutxi izango dira aurtengo
uzta hilean. Hala ere, San-
ferminetako asteen nahiko
eguraldi ona egingo du. Hain-
bestean!

Abuztua

Hasiera goibel eta kaxkarra
izango du abuztuak. Hilaren
9tik 13rako tartean hobetze al-
dera egingo du, eta hortik au-
rrera giro lehor eta dotorea na-
gusituko da.

Iraila

Hego haizea nagusi. Hasierako
egunak laino artean, baina ge-
ro hego haizea nagusituko da.

Urria

Hasiera hotz antzekoa izango
bada ere, Santafetako ateri
egingo du. Gero euria eta hai-
ze hotz nahasia egingo du.

Azaroa

Hasieran lainoak eta euria
izango dira nagusi, eta men-
dietan elurra bota dezake. San
Martinetako uda ttikia eman
daiteke, baina hilaren bukaera
hotza eta lainotsua izango da.
Ekialdeko haizea nagusituko
da.

Abendua

Hilaren erdira arte hegoaldeko
eta hego mendebaldeko haizea
ibiliko da, eta trumoi giroa
izango da. Gero haizeak ipar-
aldeko joera hartuko du, ho-
tza eta izotza ekarriz. Egube-
rietan elurra egingo du.

Iñautsi
HORTZ KLINIKA
ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO
602 ZUHL. KOLEGIATUA
RADIOGRAFI PANORAMIKO ETA ZEFALOMETRIAK
ODONTOLOGIA OROKORRA: HAUR ETA HELDUAK
JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN ☎ 943 88 46 28

OSTEOPATIA
Jose Gisasola Dr. R.P.S. 213/97
● LUNBAGO, ZIATIKA, HERNIA DISKAL
● ZERBIKALGIA, ZEFALEA, MIGRAINA,
ARTROSIS.
● TENDINITIS, KIROL LESIOAK.
Eskatu ordua: ☎ 629 45 20 53
Andra Mari, 13 behea ezk. - BEASAIN

ONGI ETORRI
taberna - jatetxea
Eguneroko menua
eguerdi eta gauetan
larunbatetan ere bai
Afariak
bataioak
jaunartzeak
Tel: 943 88 99 07
Oriamendi, 40 BEASAIN

San Sebastian bezpera, urtarrilaren 19an

Santuaren egunaren bezperan izango da ospakizuna, San Sebastiango ermittan. Meza, 12:00etan emango da auzoan hildakoen alde. Ondoren, Udalaren laguntzaz, hamaitaketa.

27 bikote pala txapelketarako

II. pala goma txapelketa, urtarrilaren 19an hasita, San Ixidro egunean amaituko da. Sei talde egin dira eta ligaska bidez bi lehenak sailkatuko dira, ondoren, kanporaketaz, finalera iristeko. Jai goizetan, 9:30ean hasita, 4na partidu jokatuko dira 30 tantora, Baratzte pelotalekuan.

Gipuzkoako txapeldun

Eneko Agirrezabal Gipuzkoako txapeldun geratu zen kro-sean, urtarrilaren 12an Elgoibarren, jubenil mailan. 5000 metroko lasterketan kadeteek, jubenilek eta beteranoek parte hartu zuten eta karrera bera ere irabazi egin zuen Enekok 17'8"-ko denborarekin. Ordiziako San Silbestrean, berriaz, parteahartzaile guztien artean 5. egin zuen.



Xegundo Galarza hil da

Seguran jaio eta bizitako musikari eta maisua, pasa den urtarrilaren 4an hil zen Lisboan. Argazkian Xegundo Galarza eta bere semea, Ramon, Segurako Koxkane tabernan 1964an. Informazio gehiago 5. orrialdean.

Segurako web orriaren aurkezpena

www.seguragoierri.net

Pasa den urtarrilaren 3an egin zen Ardiarranean Segurako web orriaren aurkezpena. Bertan, herriko hainbat arlori buruzko azalpenak ageri dira: herriko berriak (informazio eguneratua), herriaren kokapena, ezaugarriak, udaletxea, tradizioak eta festak, turismoa eta ostalritza, kirola, gastronomia,

kultura-aisialdia eta Kultur Etxea. Hau guztia 40ren bat argazkirekin tartekatuz. Informazioa euskaraz eta erdaraz ageri da eta aurrera begira ingelesez eta frantsesez azaltzea aztertzen ari dira. Berrikuntzak izan ahala, informazioa eguneratuz joango da. Hori dela eta, proposame-



nak, berrikuntzak, argazkiak... udaletxera bidaltzeko deia egin dute. Aste honetan, Seguraren interneteko helbidea adieraziz, txartel bat banatuko da etxex etxe.

Futbola

Asteburuko emaitzak:
Erregionalak: Segura 1-1 Mutriku. **Jubenilak:** Segura 1-0 Beti Ona. **Kadeteak:** Zestoa 1-3 Aizkorri. **Infantilak:** Hernani 2-0 Aizkorri.

Asteburuan etxean: Erregionalak: Segura-Intxurre, zapatuan, 17:00etan.

Eskerrak eman nahi dizkie futbol taldeak III. makrofestaren antolaketan lagundu duten guztiei.

Nikiak salgai. Segurako taldearen kamixeta ofizialak atera dituzte futbolekoek. Futboleko tabernan 20 eurotan eros daitezke.

Labur-labur

● Gabonetatik linugintzari buruzko erakusketa dago

ikusgai Elorripen.

● **Karta txapelketak Atsedenen.** Jubilatuentzako mus, tute, puntu eta brixka txapelketak otsailean. Izen ematea urtarrilaren 26 arte.

● Arantzadi zientzia elkarteak Segurari buruz amaitu berri duen **proiektu arkeologikoaren** aurkezpena hil honen amaieran egingo da.

● Irailaren 5, 6 eta 7an Seguran burutuko den **Nazioarteko sega txapelketarako** aste honetan egin da 2. bilera herriarren artean. Lan batzorderen batean parte hartzea beharrezkoa da ekitaldiaren antolaketarako.

● **Udal liburutegi berria,** Arabarren plazako Udalaren bajera izango da. Obra adjudikatuta dago eta lanak hastear daude.

● **Harrerarako sarrera eta bulego** egokia ari dira eraikitzen kristalera baten bitartez Ardiarranean.

● **'Segura historian zehar'** Joseba Intxaustik zuzendutako liburua inprentan da dagoeneko. Kaleratu orduko herriarrei aurkeztuko zaie.

● **Nestor Basterretxeak** Segurarako ideatu duen eskultura, San Joan sua egiten den parean, errebotte aldera dagoen gunean jarriko da. Eskulturaren oinarria izango dena egin berria da.

● **Kirol eskolarra.** Mendi irteera, urtarrilaren 19an Lizarrutitik Lareora. Irteera 8:30ean plazatik.

● **Azken ordukoa.** Lazkao-ko astotxo egunean astakumea tokatu zitzaion Xanti Telleria Xanti panaderori.



Atsedeen, berriro zabalik

Pintaketa, txukunketa eta dotoretze lanak bukatu ondoren, urtarrilaren 10ean zabaldu zen berriro jubilatuen elkarteko taberna. Joxe Mari Lardizabal arduradun berriaren asmoa, taberna bizitu eta plater konbinatuak eta afariak ematen jarraitzea da. Asteartean itxiko da.

Gorka Izaguirre eta Egoitz Berasategi ziklo-kros txapelkunak

2003. urteari hasiera ezin hobe eman diote herriko txirrindulari gazteek, jokatu berriak diren Gipuzkoako, Euskadiko eta Espainiako kadete mailako ziklo-kros lehiaketetan benetako maila erakutsiz irabazle izan baitira. Gorka Izaguirre eta Egoitz Berasategi benetako probak egin izan dituzte txapelak herrira ekarri. Aipatu txirrindulari herritarrak 'Garmendia Tejas y Cubiertas-S.C.Loinaz' txirrindulari taldean kadete mailan aritzen dira. Herriko txirrindulari horiek lorturiko emaitzak goraipatuz, lerro hauetatik gure zorionik beroena bidali nahi diegu.

Gipuzkoako txapelketa Errege bezperan Itsasondan jokatu zen. Han, Egoitz Berasategi herritarrak lortu zuen txapela. Txapelkunordea bigarren postua lortuz Gorka Izaguirre izan zen. Laugarren postua, berriz, Jon Urteagak eskuratu zuen.

Espainiako txapelketa

Asturiasko Sotondio herrian jokatu berria den kadete mailako ziklo-kros txapelketan euskal selekzioak gorengo maila erakutsi zuen. Euskal selekzioa partaideek lehenengo hiru postuak lortu dituzte, Espainiako txapelkun eta txapelkunorde postuak herriko txirrindulariek lortuz. Hain zuzen, Gorka Izaguirre



Ormaiztegin jokatu zen proba bateko argazkia.

lortu zuen lehen postua. Proba osatzeko egin behar ziren 9,6 kilometroak egiteko Gorkak 25 minutu eta 54 segundu behar izan zituen, eta orduko 22 kilometro baino gehiago abiaduraz aritu zen. Bigarren iritsi zen Egoitzek 26 segundu gehiago behar izan zituen.

Ziklo-kros proba gogorak, ezinbesteko prestaketak eskatzen duen sakrifizioak, jasandako hotz eta lokatzak oraingoan izan dute merezi bezalako benetako saria. Aurrierantzean ere orain arte bezala herritar gazte horiek erakutsiriko maila gorde dezatela opa diegu, iragandako urteetan Ormaiztegin izan ziren ziklo-kros txirrindulari ezaun bideari jarrai diezaitela, gure herriko izena gorengo mailara eramanez. Zorionak txirrindulari eta prestatzaile guztiei.

Giro ona Eguberrietako ospakizunetan

Aurtengo eguberri jaien inguruan prestaturiko ekintzak giro onez egin izan dira. Eguberri jaien atarian Ordiziako Jakintza ikastolako abesbatzaren eta Txindata musika eskolako ikasle-entzuten kontzertuak izan genituen, eta haur eta gaztetxoek eguberri giro aparta jarri zuten.

Gabon gaueko berri ona iragarritz egun guztian zehar herriko kale eta baserrietan asko izan ziren eguberri kantez etxe eta kaleak alaitzen ibili zirenak. Amaieran, guztiek batean, eliz atarian eguberri kanten eskaintza egin zen. Herritarrok elkarri eguberri jai zoriontsuak opatzeko unea izan zen.

Urte zaharri agurra eta berriari ongi-etorria eman ondoren erregeen zai egon ginen. 12:30etik aurrera erregeen ordezkari erregeak iluntzean iritsiko zirela igorri ziguten eta horrela izan zen. Beraiek urtero bezala 20:00ak aldera Mendizabal gainetik Karteronera iritsi ziren, bertan atsedean hartu ondoren, herriko enparantzan kokaturiko estalpe biziko haurtxoa gurtzera hurbildu ziren.

Estalpean Idoia Maizek, Ama Birginaren lekukoak, Iker Galindo haurtxoa besoetan izan zuen. Borja Irizar, berriz, Aita San Joseren paperean aritu zen.

Lehenik estalpera artzainak hurbildu ziren, eta arkumetxobat eta beste hainbat eskaintza egin zituzkieten. Jarraian, Hiru erregeek Jesus haurtxoari urrea, intsentsua eta mirra opariak eskaini zituzkieten. Eskaintzen amaieran bertaturiko haurtxoen eskariak jaso zituzten, eta beraiek goxokiak banatu zituzkieten.

Kabalgatan laguntzaile izan zirenei eskertza

Urtero urtero erregeen kabalgata antolatzeak suposatzen duen lana kontuan izanik, lerro hauetatik bihotz bihotzez eskertu nahi zaie hainbat herritarrek borondatez egiten duten lana.

Lehenik eta behin zaldien jabe eta eramaileei, beraiek gabe horrelako erregeen etorrera antolatzea ezinezkoa baita. Hain zuzen Igara eta Aitzalde baserrietako herritarrei, Bi-Kabiko Legorburu sendiari eta Juantorena sendiari.

Bestetik, urtero urtero erregeak jatzeko beraien etxeko atakabalik izaten dituzten Karteroneko Intxausti sendikoek, baita antortxeroak jatzeko beraien baserria gure zerbitzura jartzen duten Mendizabalgo Baztarrika sendikoei.

Azken urte hauetan errege bezala ateratzeko laguntza paregabea eskaini izan duten Ander Legorburu, Igor Baron, Igor Juantorena, Iban Imaz, Asier Matallanes, Imanol Lasa eta Eneko Maizeri. Baita estalpea osatzeko partaide izan ditugun Borja, Idoia eta Ikerri ere.

Ezin ahanztu dezakegu Guraso Elkartekoekin eginiko lana, baina aipaturikoen gain asko izan dira artzain, antortxero eta beste hainbat erara parte hartu eta lagundu izan duten herritarrak ere. Guztiek jaso ezazue lerro hauetatik bihotz-bihotzez eskerrik beroena, aurtengo erregeen etorreraren antolakuntza era bikainez egin izana aipaturiko guztiei esker izan baita.

Aitziber Murua



1.517 biztanle herrian

Aspaldiko partez, Zaldibiako biztanleriak gora egin eta 1.500 biztanletik gorako kopuruari eutsi dio. Iaz baino bederatziz biztanle gehiago gara aurten. Gorakada txiki horren arrazoi nagusia kanpotik Zaldibiara bizitzera etorri direnen artean sumatu da. 2002ko erroldak jasotzen duenez, 24 lagun berri etorri dira herrira, eta 12 lagun joan. Jaiotakoen eta hildakoen artean berriz, aldea txikia izan da, nahiz eta heriotzak jaiotzak baino gehiago izan.

Jaiotakoak (12):

Aimar Etxeberria
Maide Garmendia
Uxue Iruretagoiena
Henar Cuadrado
Grazi Elozegi
Nereba Garmendia
Garazi Garmendia
Haglam Haddad
Amaia Arrieta
Amaia Zeberio
Oroitz Etxabe
Iker Azkarate

Hildakoak (15):

Martina Aranburu
Jesusa Arratibel
Patxi Arrizubieta
Ildefonso Eraso
Feliipe Erauskin
Juana Garmendia
Gregorio Garmendia
Pedro Iraola
Inazio Etxabe
Jose Martin Irastorza
Angel de Marcos
Hodei Galarraza
Maria Mendizabal
Juan Sukia
Migel Sukia

Antzerki saioak Zaldibian

Urtarrilaren 17an izango da 2003. urteko lehen antzerki saioa Zaldibiako antzokian. Gaueko 10:15ean, Beasaingo Errail antzerki taldeak 'Gurasoak nork nahi ditu' aurkeztuko du. Antzerkia Katrym Lamb eta Sergi Belbele egileek idatzia da, eta euskarazko itzulpena Saroi Jauregi zaldibiarrek egin du.

Urtarrilaren 24an ere antzerki saioa izango dugu. Hau ere antzokian izango da, eta aurrekoaren ordu berean hasiko da. Ordiziako Urrup antzerki taldeak 'Susi' aurkeztuko du. Antzerki hau Carol Lopezek idatzia da, eta kasu honetan ere, itzulpena Saroi Jauregik egingo da.



San Silbestrea Zaldibian

Abenduaren 31an, San Silbestreko korrikaldia antolatu zuen Zaldibiako Gazte Taldeak. Gaztetxoek mailan Mikel Ganza-rainek irabazi zuen eta Mikel Nazabal gelditu zen bigarren. Helduen mailan berriz, 16 lagun atera ziren korrika, eta Joseba Irazusta gaztea atera zen irabazle. Manex Mendizabal gelditu zen bigarren eta Dionisio Agirre hirugarren. Ea datorren urtean jende gehiago animatzen den, batez ere neskak, eta lasterketa honetan parte hartzen duen!

Askatasuna taldearen zozketa

Urtero bezala, Zaldibiako Askatasuna taldeak mendiko ekipo baten zozketa egin du. Zerbaki saritua 9.836a izan da; hala ere, oraindik ez da zerbaki honen jabea agertu. Urtarrilaren 26a baino lehen agertzen ez bada, saria bigarren zerbakiarentzat izango da, 4.801 zerbakiarentzat alegia. Begiratu ongi zuen txartelak!

Santa Fe parrokiaren saskia

Zaldibiako parrokiako beharretarako dirua biltzeko saski zoragarri baten zozketa egin da. Eguberriko zozketa horretako zerbaki saritua 836 izan da eta saria Ordiziako Kafe Zabale dendak eraman du.

Edurne Soraluze



Beasaingo ikastolan hautzaindegia martxan

Sorreratik Beasaingo ikastolak kontuan izan ditu guraso eta haurren beharrak. Horregatik bere hezkuntza proiektuan barneratzen du haur-heziketa ere.

Zerbitzu zabala

Hasiera-hasieratik antolatu zuen hautzaindegi zerbitzua ikastorduz kanpo eta ikaste-

gunez kanpo. Familiari umearen heziketan behar duen heinean eta neurrian lagunduko dion proiektua eskaintzen dio. Horregatik, behar duenean bakarrik erabiltzen dutelako familiek, erabiltzen dena bakarrik ordaintzen da. Kuotak ezberdinak dira egun osoz edo egun erdiz behar dutenentzat. Gainera, 0-2 urteko

XXXIX. San Silbestre kros lasterketa

Afrikkarrak izan genituen nagusi Beasaingo San Silbestre kros lasterketan. 176 korrikalari irten ziren 9 kilometroko lasterketa honetan. Hicham Chat marokoarra izan zen lehena helmugaratzen (26.19). 2. sailkatu zen David Tuwey keniarra (26.38) eta 3. Yovanes Mustafa marokoarra (27.00). Emakumeetan berriz, Margaret Iro keniarra izan zen lehena helmugaratzen (32.20), 2. postuan sailkatu zen Amaia Insausti (33.12) eta 3. Mertxe Palacios (34.00). Herritarren artean berriz, sailkapen orokorrean 9. izan zen Manu Hurtado izan zen lehena helmugaratzen (29.09), Martin Irizar 2. (29.40) eta 3. sailkatu zen Peio Garmendia (30.18).

zerbitzua senide batek baino gehiagok erabiliz gero ere, kuota bereziak daude.

Bestalde, normalean hautzaindegia behar duenak urte osoan behar duenez, Haur Ikastola urte osoan dago zabalik; irailaren 2tik uztailaren 30era bitarte. Ikastolan oporrrak direnean (Aste Santuetan, Eguberrietan eta Udan) egun osoko zerbitzua eskaintzen dute umeentzako jolas eta jarduera mota asko tartekatuz; igeriketa, ikaspilota, musika, ingelesa... Goizeko 7:30etatik arratsaldeko 18:30ak arte.

110 metro karratuko espazio eroso eta zabala antolatu dute. Hautzaindegian bertan dituzte aldagela eta jangela ere, haurren neurria egokituak, autonomo izaten molda daitezten. Logelan, bularreko umeek amarekin bere intimitadeari gorde dezaten, bular-

emateko txokoa prestatu dute.

Jangela Zerbitzua

Janaria bertan prestatua da eta dieta bereziak ere prestatzen dituzte. Ikasleek eta gurasoek ere bazkaldu dezakete bertan. Egunerorako egin daiteke eskaria, edo nahi izanez gero astean hainbat egunetarako edo, aldezturik izena emanda, egun solteetarako ere bai. Erabiltzen duzuna ordaintzen duzu.

Horrela, aurrerantzean umea ikastolako hautzaindegira ekartzen duenak, ikastolako proiektu euskaltzale eta aurreratuan haurra hezitzeaz gain, txiki-txikitik inguru ezagunean heziko da.

Beasaingo Ikastola herriaren erdian kokatua dago, Urbialde Enparantzan.

Nekane Altuna

11. Aterpe pintura lehiaketa

Aterpe tabernak antolatzen duen pintura lehiaketan Maider Urretabizkaia artista laskaotarrak eraman zuen lehen saria. Aipamen berezia eman diote Oreretako Patrizia Piñeirori. Bestelarik batzuk ere aukeratuak izan ziren. Itsasondoko Mila Garmendia, Lasarteko Oskar Barrera, Lezoko Iñaki Zarate, Leitzako Mare Arrizurieta eta Alegiko Mari Jose Larrateren lanak.

Minbiziaren aurkako Elkartearen aldeko erakusketa

Minbiziaren aurkako Elkartearen alde dirua ateratzearren erakusketa berezi bat antolatu dute Usurbe Antzokian, herriko artistek emandako kuadroekin. Erakusketa hau ikusgai izango da urtarilaren 17tik 26ra. Azkeneko egunean bi kuadro zozketatuko dituzte. Aurrez txartelak salduko dira 2 eurotan.

Peña Beloki argazki lehiaketa

Beasaingo Peña Belokik antolatutako argazki lehiaketan partaidetza handia izan eta hona irabazleak zeintzuk izan ziren: 1. Rafael Diaz (Bartzelona). 2. Iñaki Azanza (Ordizia). 3. Benito Cantero (Bergara). Joseba eta Gorka Beloki anaiei ateratako argazki onenaren saria Iñaki Azanzarentzat izan zen.

Aitzgorri Mendizale Elkartean egin zuten sari ematea eta era berean Joseba Beloki eta Abraham Olano omendu zituzten.

Nortasun agiria berritzeko datak

Nortasun agiria berri nahi dutenek Beasainen egiteko aukera izango dute urtarilaren 30an Udal bulegoan. Txanda Udal-tzaingoan ematen da goizeko 6:35etik 21:25era. 125 zenbaki banatzen dira. Nortasun agiria egiteko lan taldea Donostiatik etortzen da eta ordutegia honako hau da: 9:30etatik 13:15era. Egingakoak jasotzeko ere Udaltzaingotik pasatu behar da.



Gabonetako balantzea

Gabonetako balantzea egiteko orduan, azpimarratu beharrekoa, behin eta berriro herri honen eskuzabaltasuna da, izan ere, Gabon egunean kantari ibili ziren bi taldeek bildu zuten diru kopurua ezagutzean burura etortzen den lehen gauza horixe da. Goizez bakarrik ibili zen eskola txiki-koek osatutako taldeak 631 euro bildu zituen eta egun osoz ibili zen katekesi eta kultur elkarteko taldeak 1.253,29 euro bildu zituen.

Aipatu behar, eskola txiki-koek bildu zuten diru kopurutik zati handi bat El Salvador-ko San Dieguito herriko eskolara bidali dela, bertako beharretan laguntzeko, beste urteetan egin ohi den bezala.

Mandioa taberna oporretan

Mandioa taberna oporragatik itxita egongo da urtarrilaren 17tik otsailaren 4a bitartean.

Mari Flor Mendizabal

Tobera musika eskolakoentzat sariak

Abenduaren 6, 7 eta 8an akordeoi jaialdia ospatu zen Arrasaten urtero bezala. Bertara joan ziren Tobera musika eskolako hainbat ikasle, eta Zeraingo hiru euren dominak lepotik zintzilik zituztela itzuli ziren. Jone Oria Abendibarrek zilarrezko domina jaso zuen, eta Laida Alustiza Aseginolazak eta Olatz Aranburu Inurategik brontzezkoak lortu zituzten. Horiez gain, Zegamako ikasle batek urrezkoa eskuratu zuen eta beste bik zilarrezkoa.

Bolatea

Urte berriarekin batera bolatako torneoak ere martxan jarri dira berriro. Taldekako erregularitateko torneorakin hasiera eman zaio aurtengo denboraldiari. Torneo hau, hilaren 5ean Herreran hasi eta herriz herri jokatu ondoren apirilaren 15ean Lasarten amaituko da.

Herriz herriko sailkapen saio horietako bat hilaren 26an Zeraingo Liztormendi bolalekuan jokatuko da.

Tute eta mus txapelketa

Joan zen larunbatean, hilak 11, Liztormendi elkarteak jokatutako tute txapelketara jende ugari hurbildu zen Zerain, Segura eta Zegamatik, batik bat.

Arratsalde osoz lehia bizian aritu ondoren, eta hainbat kanporaketa gaindituta, Juan Mari Iztueta eta Raimundo Intxaustik irabazi zuten txapelketa. Bigarren saria Gema Oria eta Anttoni Zalduak eramane zuten, bi bikoteak zeraindarrak hain zuzen ere.

Mus txapelketa, hilaren 25ean, arratsaldeko 4etan hasita elkarte berean jokatuko da.



**Barandiaran
ZERAMIKAK**



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxebizitzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, hidromasajea, iturri eta gehigarriak
- Ikatz eta egurrezko sukaldeak

☎ 943 88 79 72

Senpere, 7

BEASAIN



mazda
Bikar, S. A.



☎ 943 889 296 Faxa: 943 887 952

N-1 errepidea, 419 Kma **BEASAIN**

Biztanle kopurua gora, aspaldiko partez

Urte berriaren etorrerarekin batera iazkoak utzitako biztanleriaren datu zenbait gogoratuko ditugu aurtengo lehen ale honetan, udal erroldatik jasoak. Hain biztanle gutxiko herria izanik, erraz mugitzen dira proportzioak, eta gora-behera handiak eragiten dituzte altek eta bajek, zenbakitan hainbeste izan ez arren. Horrela, 443 lagun dira gaur egun Gabirian erroldaturik daudenak, orain urtebete garai berean baino 20 gehiago (%4,51ko hazkundea).

Hazkundearen nondik norakoak arakatzan hasita, herriari kimu berriak badatozkiola da lehen begiradan antzeman daitekeena. 2002an 10 ume jaio ziren, nabarmentzeko moduko kopurua, azken bi hamarkadetan ez baitago urterik hainbestekorik. Heriotza bakarra izan zela kontuan hartuz, gorakada natural esanguratsua utzi zigun gainditu berri dugun urteak.

Bestalde, migrazio mugimenduei dagokienez ere bada aztergairik. Aspaldiko urteotako joerari buelta emanez gabiriaratuak kanpora joandakoak baino gehiago izan ziren. Hala nola, 52 lagunek eman zuten herriko epaitegian izena, eta 34k baja. Bada, ordea, arrazoi garbi bat inmigrazio positibo horrek: Europa ekialdeko langile ugari daude etorritakoen artean, poloniar jatorrikoak gehienak. Beko-errotako aterpetxean daukate horietako askok bizilekua.

Haurrak ugaritzen ari badira ere, ezin eragotzi populazioa zahartzea: jubilazio adina -65 urte- gaindituta dutenak (100) gehiago dira hogeitau bitarteko haur nahiz gazteak baino (91). Populazio osoaren %22,57a osatzen dute erretiratuak multzoak. Gai nontzean, goiko taulan azaltzen den moduan bana daitezke adin-taldeka biztanle guztiak:

Aimar Maiz

Urte tartea	Kopurua	% zenbat
0-15	69	15,57
16-25	51	11,51
26-40	84	18,96
41-60	117	26,41
61-80	89	20,09
>81	33	7,44

Astotxo eguna, hotzarri aurre eginez

Aurreko urteetan baino jende gutxiago bildu bazen ere, giro hotzari aurre eginez jende asko inguratu zen aurtengo Astotxo egunera. Hotzari batere ere, Egiptoko ihesaren antzezlanean parte hartu zuten 150 gaztek egin behar izan zioten.

IV. Gipuzkoako asto lehiaketan Usurbilgo Bertol astoak eraman zuen sari nagusia. Astoaren jabea Goierriko hainbat udaletxeetan, tartean Lazkaokoan, lan egiten duen Jakoba Errekondo da. Bertolek aurkeztu den lehiaketa guztiak irabazi ditu.

Kronista beharrean

Lazkaoko kronika idatziko duen norbait behar du GOIERRITARRA aldizkariak. Ez da derrigorrezkoa kazetaria izatea, herriko berriak Goierritar guztiei jakinarazteko gogoia izatea nahikoa da. Norbait interesaturik balego deitu, 943 889 612 telefono zenbakira.





Eguberrietako postal eta idazlan lehiaketan sariak

Goiztiri AEK-k Jakintza eta Urdaneta-Oianguren ikastetxeetako ikasleen artean antolatutako postal eta idazlan lehiaketako sariak banatu dira jada. Postalek Gabonak zuten gaitzat eta aipatu ikastetxeetako 5, 6 eta DBH1eko ikasleek hartu zuten parte. Jaso diren lan guztien artean, AEKn euskara ikasten ari diren ikasleek ez dute lan erraza izan, baina azkenean hiru sari bakarrik banatu behar ziren. Hauek jaso dute saria: Jakintza Ikastolan lehen saria DBH1eko Sara Agirrek jaso zuen, bigarrena 6. mailako Amaia Basaurik eta hirugarrena 5. mailako Unai Cobosek. Urdaneta-Oiangurenen, aldiz, lehen saria DBH1eko Arrate Arbizak jaso zuen, bigarrena, 6. mailako Jone Ro-

driguezek eta hirugarrena maila bereko Ane Urteagak.

Idazlan lehiaketan bi ikastetxeetako DBH2ko ikasleek hartu zuten parte. Gaia librea zen eta guztira 4 lan jaso dira. Hiru sari banatu ziren guztira eta idazlan saridunak goi urratseko ikasle eta irakasleen artean aukeratu ziren. Lehen saria Jakintzako Izaskun Usabiagarentzat izan zen 'Gure abestia' lanarengatik, bigarrena ikastetxe bereko Leire Gaztañagarentzat 'Nire iragan beltza' lanarengatik eta hirugarrena Oiangurenko Amaia Jauregientzat 'Zuhaitzik gabeko Gabonak' lanarengatik. Guztiek ere sari gisa Lazkaoko Gerriko Liburudendan materiala erosteko txartelak eskuratu zituzten.

DYA-k egoitza berria

Aita Urdaneta Etxaldeko zaspigarrenean izango ditugu hemendik aurrera errepideetan arazoak direnean laguntza emateko prest dauden zerbitzukoak. Egun 12 langile ari dira eta momentuz asteburuetan bakarrik ariko dira lanean. Aurrera begira eguneroko zerbitzua eskaintzea dute helburu DYAkoe.

Peri bereziko sariak

Iazko kontuak diren arren aipamena merezi dute Gabonetako peri berezian saria lortu zutenek. Eguberri bezperan ospatu zen, astearte, asko eta asko oporretan zeuden eta hori nabaritu zen. Aharirik ez baina indioilar, kapoi, oilo, bigantxa, basurdekume, pottoka, astakume, orein eta abar izan zen fruitu eta barazkiez gain. Artisau postuak Santa Maria kalean eta Nikolas Lekuona plazan jarri ziren, ohiko postuak Garagartza Plazan eta Fruituak Enparantza Nagusian. Azkenean sariak hauek izan ziren:

Fruituetan lehen saria Hernaniko Manu Iradirentzat, bigarrena Gabiriko Anttoni Murgiondorentzat eta hirugarrena Gabiriko Miren Agirrezabalarentzat.

Errezil sagarretan lehen saria Maria Isabel Zumalakargirentzat, bigarrena Miren Agirrezabalarentzat eta hirugarrena Anttoni Murgiondorentzat, hirurak ere gabiriarrak.

Fruitu lehorretan, berriz, saria Gabiriko Anttoni Murgiondorentzat izan zen.

Urteko lehen peri berezia apirilean izango da, Aste Santu inguruan artzain eguna ospatuko baita.

Antzerki garaia

Gaur egungo antzerki ikuskizun hoberenak eskaintzeko helburuarekin 'Antzerki garaia' programa jarri dute martxan berrirori ere Beasain eta Ordiziako Udalek. Lehen emanaldia Ordizian izango da, gaur bertan iluntzeko 10ak eta laurdenean Herri Antzokian. Patxo Telleria eta Mikel Martinez aktoreek 'Euskara sencilloaren manifestoa' taularatuko dute eta bertan euskalduntzearen arazoak islatuko dituzte.

Kimetzen ikastaroak

Kimetz emakumeen elkarteak maiatza bitarterako ikastaroen eskaintza zabala egin du eta zenbaitetan izena emateko aukera dagoela jakinarazi nahi du. Hauek dira ikastaroak: sabeldantza, lorazaintza, risoterapia, makilajea, idazlan tailerra, errusiar portzelana, informatika (web orriak) eta psikologia. Interesatuok deitu 943-883379 telefono zenbakira (Juli).

GKEei laguntzak

Aurreko alean aipatu genuen bezala, Ordiziako Udala hainbat Gobernu Kanpoko Erakunderi laguntza ematekoa zen. Guztira 18 proiektu aurkeztu ziren, eta Udalak horietako 10 proiekturi laguntza ematea hobetsi zuen. Guztira 56.000 euro banatuko ditu Udalak honako erakundeen artean, aurrekontuaren %1a hain zuzen ere. Euskal Fondoak 8.600 euro jasoko ditu, Paz y Tercer Mundo erakundeak 6.950 euro, Oscar Romero Solidaritza Batzordeak 6.709 euro, Mugen Gaietik erakundeak 6.900 euro, Medicus Mundik 6.245 euro, Izan erakundeak 2.879 euro, Ropka Euskadik 2.103 euro, Gurutze Gorriak 4.900 euro, Prosalusek 4.167 euro eta azkenik, Misiones Diocesanak 6.921 euro.

Aitor Calvillo

Gabonen ondoren ikastaroak

Gabonak famili inguruan pasa ondoren, urte berria ekimenez beteta hasiko dugu.

Kultur Etxeak, Taila ikastaroa eta sukaldaritza ikastaroa martxan jarri ditu.

Taila, Jabier Arrietak emango du eta dagoeneko urtarilaren 14an martxan jarria da. Hala ere, beste norbaitek apuntatu nahi izango balu dei beza Udaletxera.

Sukaldaritza Ikastaroa, ere martxan jarri nahi da, eta horretarako izen ematea irekita dago. Asmoa, oinarritzko sukaldaritza da eta beraz, izena emandakoekin bilera egingo da urtarileko azken astean, ikastaroaren egutegi eta ordutegia gehienei ongien datorkienean jarri asmoz.

KZgunean ikastaro ugari

Joan den udazkenean abian jarri zen KZgunea Zegaman. Harrezkero herritar ugari parte hartu du bertako ikastaroetan, eta 2003. urtean ere aukera izango dugu zegama-

rrak mende honetan ezagutu eta erabili behar izango dugun teknologia ikasteko. Hona hemen martxan jarri diren ikastaroetako egutegi eta ordutegiak:

Urtarrila-otsaila

22 orduko ikastaroak: Urtarrilaren 13tik 27ra, goizeko 11:00etatik 13:00etara. Urtarrilaren 28tik otsailaren 9ra, 9:00etatik 11:00etara.

10 orduko ikastaroak: Urtarrilaren 20tik 24ra, 9:00etatik 11:00etara. Otsailaren 3tik 7ra, goizeko 11:00etatik 13:00etara.

Otsaila-martxo

20 orduko ikastaroak: Otsailaren 17tik 28ra, arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara. Martxoaren 3tik 14ra, arratsaldeko 16:00etatik 18:00etara.

10 orduko ikastaroak: Otsailaren 17tik 21era, arratsaldeko 16:00etatik 18:00etara. Martxoaren 10etik 14ra, arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara.

Udalak egindako bideoa salgai

Zegamako Udalak 'Herri baten arnasa. Usadio zahar eta berriak' bideoa editatu du. Ordu eta erdiko iraupena duen bideo horrek udalerriaren urtean zehar ospatzen diren ekintza eta ekitaldi nagusien bilduma jasotzen du. Bideoa Vendi, Kooperatiba, Txurreria eta M^a Jesus dendetan 9 euroko prezioan salgai egongo da. Bideoaren sustatzailea Zegamako Udala izan da eta egilea Fotoetxe argazki etxea izan da.

Garajeetarako izen ematea

Udal Gobernu Batzordeak abenduaren 20an onartu zuen Txarape eta Alderdi Eder artean eraikiko diren garajeetako abenduaren 5 arte aurkeztutakoen zerrenda. Hain zuzen ere 20 eskaera aurkeztu dira, eta horien artean nota-

rio aurreko zozketa publikoa, oraindik zehaztu gabe dagoen, gertuko egun batean egingo da. Esan beharra dago, bizpahiru eskatzailek bi motatako garajeetarako eskaerak egin dituztela, eta beraz, eraikiko diren 20 garajeetatik bizpahiru bakarrik geratzen direla saltzeko.

Arau subsidiarioak

Inazio Ibarretxe arkitektoak, Zegamako Arau Subsidiarioen Berraztertzeari dagokion Aurrerapen-agiria idatzi du. Bertan aldaketaren irizpide, helburu eta irtenbide orokorrak bil-tzen dira eta Udalbatzarrak, abenduaren 20an egin zuen bilkuran, aurrerapen hori jendaurrean jartzea erabaki zuen.



Eguberri jaialdi arrakastatsua

Abenduaren 29an ospatutako XVIII. Eguberri Jaialdia benetan ederra izan zela esan behar. San Martin eliza bete-beteta zela burutu zen, herritar nahiz herriz kanpo etorritako entzuleak asko izan baitziren. Eta jasotako iritzien arabera oso gustora geratu ziren bertaratuak ikus-entzundakoarekin.

Jaialdiaren barne gauzatu zen Txori Meteorologoa izeneko ipuin musikaren estreinaldia. Aurrez sortutako ikusmirak beteta geratu ziren obra honetan azaldutakoarekin. Ondoren, Orkatx Txiki abesbatzaren hogeitau urteetako bizipenak laburtzen zituen bideo baten segidan, gabon kantuen tarteak izan genuen.

Urtez urte ezberdina eta osatuagoa gertatzen den ekintza honen jarraipena hurrengo urtean ere hain borobila izango den itsaropenez eta igandean estreinatutako Txori Meteorologoa ipuin musikari emankizun ugari opatuz agurtu gintuen Julian Beloki aurkezleak. Horrela izatea espero dugu han elkartu ginen guzti-guztiok. Zorionak Orkatx Txikiri eta bere arduradunei izandako ekimen bikain honengatik.

Ikastaro horietan parte hartzeko baldintza bakarra 18 urte beteta izatea da. Beraz, bertan parte hartzera gonbidatzen zaitugu, gero eta behar gehiago izango dugula internet inguruko mundu berri ho-

ri guztiok ere ezagutu eta pixkana-pixkana ikasteko. Ikastaroak doan dira eta izena emateko dei egizu, Udaletxera 943 801115 edota KZgune-
ra bertara, 943 802177.

Edurne Albizu

Tobera musika eskolakoentzat sariak

Abenduaren 6, 7 eta 8an akordeoi jaialdia ospatu zen Arrasaten urtero bezala. Bertara joan ziren Tobera musika eskolako ikasleek maila bikaina erakutsi zuten. Horren erakusgari dira herrira ekarritako dominak. Irati Badiola Artolaz urrezko domina jaso zuen eta Amaia Rodriguez Irigora-sek eta Ane Arizkorreta Solanek zilarrezkoa.

On Joxemiel guztion oroimenean



San Gregorioko plazan ezarritako Jorge Oteiza eskulturgile handiaren eskultura izan genuen elkargune, joan den abenduaren 21ean, On Joxemielen heritzaren 11. urteurreneko ekitaldien barne, Ataungo Udalak antolatuta. Udaleko ordezkariez gain, Jexux Altuna, Barandiaran Fundazioko lehendakaria, Oteiza Fundazioako bozeramaile Jaione Apalategi herri-tarra eta fundazio bereko bere bi lankide, Carlos Catalan eta Carlos Martinez izan ziren bertan. Baina bereziki omen-duaren iloba Pilarren presentzia nabarmendu zen, beti bezala bere osabaren jarraitzaile fin eta leiala.

Jaione Apalategi izan zen 'Centauro' eskultura estaltzen zuen estalkia kenduz ekitaldiari hasiera eman ziona. Ondoren Otsoa Dantza taldeko bi dantzarik, Ainhoa Begiristain eta Jon Zurutuzak aureskua dantzatu eta Aitor Auzmendi alkatea izan zen hitza hartzen lehena. 40 urte atzera eginez, egun horretan bertan On Joxemiel eta Oteiza San Gregorioko eskoletan nola elkartu ziren jakinarazi zigun. Gainera eta, kointzidentziak kointzidentzi, egun udaleko idazkari den Serafin Jakaren aita izan omen zen idazkari. Eskultura hau bi ja-

kintsuen arteko elkarlanaren uztartetaren ondorio dela adieraziz, Jexux Altunari eman zion hitza. Honek bi gizonen arteko adiskidetasunaz eta elkarrekiko sentitzen zuten estimazioaz jardun zuen. Baita 'Academia Errante'n elkarrekin egindako lanaz ere. "Joxemielen oroimen askoren artean bat gehiago" dela esanez amaitu zuen Altunak.

Jarraian, Jaione Apalategik hitz hunkigarriak izan zituen bientzat: "*biekin disfrutatzeko ohorea izan dut. Beren lana besteentzako kezkatzat hartu zuten biek, ez dute beren bizitza partikularra emendatzeko erabili*". Horretan datza bien handitasunak. Euskal Herriaren izen ona munduan zehar zabaldu izana eskertu beharrean gaudela gogoratu zigun. Hitzaldia amaitu aurretik, Oteizak 'Academia Errante'ren bileran lehendabizikoz parte hartu zueneko anekdota bat ere kontatu zigun. Hala kontatzen omen du Oteizak: Bilera egunean ttiriki-ttarraka nola bait iritsi omen zen San Gregoria, eskola zaharretara. Berandu iritsi zela eta, dudatan ibili omen zen sartu ez sartu... hala pentsatuko omen zuten "*hemen da betiko bulloso hau*" eta, hala behintzat

Joxemiel Barandiaran ikastetxea saritua

Gipuzkoako Foru Aldundiak Joxemiel Barandiaran ikastetxea eta Pako Urrestarazu kirol arduraduna saritu zituen joan den abenduaren 20an. Informazio gehiago 5. orrian.

Sari gehiago

Hirugarren Adina Hirugarren Mundurako elkarteak antolatu III. Lehiaketan, eskolako 3 ikasle izan ziren sarituak. 'Pobreziaren murriztea haurtzaroen hasten da' gaiaren inguruan idatzitako idazlanen artean, Saioa Arzak irabazi zuen lehen saria, Laida Olanok bigarrena eta Harriet Zalduak hirugarrena. 1994.etik aurrera jaiotakoen artean Iñaki Dorronsororentzat izan zen lehen saria.

Bestalde, Segura Irratiak Lehen eta Bigarren Hezkuntzako-entzat antolatu Itaka Literatur lehiaketara aurkeztutako 400 lannen artean, eskolako bi ikasleak izan dira sarituak. Lehen Hezkuntzako 3 eta 4. Mailakoen sailean banatu ziren 5 sarietarik bat Iñaki Dorronsorok eskuratu zuen. 5-6. mailakoen artean, berriz, bere anaia Mikel Dorronsororen idazlana izan zen 5 sarietarik bat eskuratu zuena. Zorionak beraz, Saioa, Laida, Harriet, Iñaki eta Mikeli!

Junta berria Atsedeen-tokin

Atsedeen-Toki jubilatuen elkarteak junta berriaren partaideak honakoak izango dira, junta berritza egin ondoren: Lehendakari lanetan Olatz Guridi arituko da; lehendakari-orde Pili Barandiaran; Idazkaria Xanti Munduate, diru kontuez Juan Beloki arduratuko da eta azkenik, Maria Eskisabel, Pilar Imaz eta Jose Mari Aldasoro izendatu dituzte bokaletarako.

Gabon eta Urte Zaharretako diru eskea

Joan berri zaizkigun eguberrietan, eta usadio zaharrari jarraituz, 100en bat herritar ibili ziren kantuz eskean, etxez-etxe herri guztian zehar.

Ataungo Etxerat-ek aditzera eman zigunez, Gabon gauean 2.854,81 euro bildu zituzten eta, 1.833,09 Urte Zahar egunean. 800.000 pezeta inguru bi egunetan zehar. Etxetara bidalitako oharrean, herritarrei esker onak emateaz gain, hilero, azkeneko ostiraletan San Martingo plazan, iluntzeko 8:30ean egiten duten kontzentrazioa joateko gonbitea luzatzen zitzaigun.

Urte Berriari hasiera berri zaharrekin eman badiogu ere, Urte Berria berrietan oparoa izateaz gain, zuek ere urte oparoa izan dezazuen opatuz amaitu nahi nuke.

Agurtzane Bikuña

sartzea erabaki omen zuen. Sartu eta han omen zeuden zientzialari eta jakintsu guztiak, mahainguruan, ixil ixilik. Oteiza sartu eta inor ez omen zen mugitu ere egin baina, On Joxemielek, altxatu eta esertzera gonbidatuz, hala esan omen zien bere kideei: "*Hemen daukagu orainarte inork hitz egin ez digunaz hitz egingo diguna*". Halakoxea zen On Joxemiel, beti ikasteko prest.

Urte Zahar egunean lore eskaintza

Bere urtebetetze egunean lore eskaintza egin zitzaion On Joxemieli San Gregorioko hilerrian. Bere iloba Pilar aurrean zelarik, aureskua dantzatu zioten Saioa Arza eta Naiara Aldasorok. Ekitaldiari amaiera Oier Zurutuzak abestutako bi bertsoekin eman zitzaion.



Plazan eta Toki Txokon zubi berriak

Hasi berri dugun urteak, aldatu dakartza herri gunera. Plazako zubia eta Toki Txoko parean Zigor aldera doana bota eta berriak egingo dituzte. Proiektua Eusko Jaurlaritzaren esku dago. Jaurlaritzako teknikarien esanetan, euri jasak gertatuta, bi zubi horiek

uholdeak sortzeko arriskua dute, hori dela eta bota eta berriak egingo dituzte.

Aldaketa nabarmenena plazako zubi berriak ekarriko du. 11 metroko zabalera izango du, eta egitura berezia. Herdoildutako burniarekin egingo dute zubia, eta erdial-



Gaztetxeak 2 urte

Abenduan bete zituen Gaztetxeak bi urte. Hori ospatzeko abenduaren 6an eta 7an hainbat ekitaldi egin zituzten. "Sobre-dosis Mistol" eta "Oliba gorriak" taldeen kontzertua, afariak, eta triki-bertso poteoa izan ziren besteak beste. Argazkia, bigarren gazte eguneko da.

Xabier Urteaga

dean banku antzeko forma hartuko du. Zubi berria oinezkoentzat bakarrik izango da. Hori dela eta, Udala, pilotalekura ibilgailuak Igarondo aldetik sartzeko aukera aztertzen ari da.

Orain dauden zubiak bota eta berriak egiteko lanak uda ondoren hasiko dira. Lanak Eusko Jaurlaritzak ordaindu-

ko ditu. Lanak egiteko lur zatiren bat erosi beharra baldin badago, Udalaren esku joango da.

Bi zubiak egiteaz gain, Jaurlaritzak Ursuaran erreka berreskuratzeko ekimena prestatzen ari da. Ingurugiroari zuzendutako proiektua da eta batez ere Bi Kabitik gorako zatian izango du eragina.

Sanblasak

Urtarrilaren 24an hasiko dira Sanblasetako ekitaldiak.

Urtarrilak 24, ostirala:

Sorkun taldearen kontzertua Igarondo pilotalekuan.

Urtarrilak 25, larunbata:

10:15ean: Ziklo-krosa

Arratsaldean: Futbito eta frontenis txapelketetako final aurrekoak.

Iluntzean: Sagardo dastaketa. Ainhoa Munduate eta Olatz Nograro trikitilariak bertan izango dira.

Gauean: Tabernarietako antolatuta Akelarre musika taldea izango da plazan.

Urtarrilak 26, igandea:

11:00etan: Krosa.

17:00etan: Haurren danborrada.

Otsailaren 3an egingo den Herri afariarako txartelak salgai daude herriko tabernetan 18 euroren truke.

Ziklo-krosa

Aurtengo Sanblasetan, herrian duela urte batzuk izaten zen ikuskizuna berreskuratu da: ziklo-krosa. Idiazabalgo Kirol Elkarteak antolatu du bere 25. urteurrena ospatzeko egiten ari den ekitaldien baitan. Nazioarteko froga urtarrilaren 25ean jokatu da eta kadeteak, jubenilak, 23 urtez beherakoak, elite mailakoak eta emakumezkoak arituko dira.

Adarretik abiatuta, Gurutze Berri auzotik, Errekalde, Berraun eta Goatxetik barrena ibiliko dira txirrindulariak. Horien artean herriko 3 txirrindularik parte hartuko dute.

Krosa

Krosak 23 garren edizioa du aurtengoan. Urtarrilaren 26an jokatu da goizeko 11etan hasita. Hauek kategoriaz bakoitzak bete beharreko ibilbidea: neska eta mutil benjaminak 500m, neska eta mutil alebik 1.000m, neska infantilak 1.100m eta mutil infantilak 1.800m.



Eguerdiko 12:00etan ondoko lasterketa jokatu da: neska kadeteak 2km, mutil kadeteak 4km, emakume helduek 6km eta gizonezko helduek 10km.

Izena egun berean eman daiteke. Aurretik izena emateko 943187100 telefonora deituta edo internet bidez egin daiteke www.herrikrossa.com helbidean.



Belen Maiza, San Benito ikastolako zuzendaria:

"Ikastola handituz joan den neurrian espazio beharrean aurkitu gara"

Ikastolak ondoren gizartearen jaso behar duenaren oinarria artzen du pertsonengan. Lan hori ahalik eta modu egokienean egin behar dela azaldu digu Belen Maizak, azken 10 urteotan ikastolako zuzendari denak. Hala ere, ikastola hazi egin da, egun 880 ikasle ditu, eta egoera horri egokitu behar zaio. Horretarako erabiliko da Kilometroak 2003-an lortutako laguntza.

-Asko kostatu al da Kilometroak 2003 Lazkaon egitea?

- Kilometroak lortzea askotxo kostatu zaigu. 7 aldiz eskatu eta gero etorri zaigu. Ikastola eraiki zenean, administrazioak egin zuen orduko beharrei erantzunez. Baina poliki-poliki ikastola handituz joan da eta ikastola handituz joan den neurrian, espazio beharrean aurkitu gara. Izan ere, egun, ikastetxe batean espazioez hitz egiten dugunean, ez dira soilik eskolak emateko behar ditugun gelak; momentu honetan eskola batek, zerbitzuetarako espazioak ere behar ditu: liburutegiak, ikus-entzunezko eta teknologia berrientzako espazio aproposak... Orduan, eraikuntzak zabalitzeko momentu honetan aurrekontu handia dagoenez eta gurasoen patrikatik ateratakoarekin ordaindu ezingo zela eta, beharrezkoa ikusi genuen Kilometroak eskatzen jarraitzea.



- Egun horretan biltzen den diruarekin zein helburu bete nahi ditu Lazkaoko ikastolak?

- Egin nahi ditugun obrek behar ekonomiko larria daukagu. Ikastola txikitxo gertatu da eta espazioak irabazi behar ditugu. San Prudentzio izeneko eraikina, orain arte E baten itxura daukana, itxi egin nahi dugu. Eta gelditzen den jolasleku edo patioa estali egin nahiko genuke euria eta eguraldi kaxkarra egiten duenean, ikasleak eroso senti daitezten. Ikasle nagusienak dauden eraikinari begira, areto nagusiaren sonorizazioa hobetu nahiko genuke. Eta ez dugu ahaztu behar, ikastolatan gero gizarte helduan pertsona batek jasoko dituen oinarriak jartzen ditugula, eta beraz, ezin diegula muzin

egin gizarteak izan dituen aurrerapenei, teknologia berriak kasu, eta horretarako ere espazioak egokitu behar ditugula. Haurtzaindegian ere badaude egin beharreko aktuzio batzuk. Eta haur elbarrientzako ere espazio aproposak, igogailuak eta abar jarri behar ditugu.

Hori helburu ekonomikoari begiratuta. Baina aldi berean Kilometroak festak beste helburu batzuk ere baditu. Alde batetik, ikastola beraren proiektua ezagutzera eman eta euskara indartu, eta bestetik, herriaren integrazioan lagundu: lan bat konpartituko da eta horrek gurasoen elkar ezagutza indartuko du.

- Kilometroak festa eguneko jaiak dela pentsatzen dute askok. Baina aurtengo lazkaotarrok garbi ikusi dugu, hori baino askoz ere gehiago dela.

- Urtetan festa hau ospatzen ibili gara, eta batzuetan lanean ere bai, baina egun konkretu batean. Norberari tokatzen zaionean ordea, ikusten da horrek aurretik eskatzen duen lana. Prestakuntza urte osoan egin behar da. Eta horrek bi helburu ditu: memorian mantendu egin behar da festa handi hori badatorrela eta jendearen prestakuntzan ere laguntzen du, makro festa hori badatorrela mentalizatuz eta estrategia eta organizazioa nola egin ikasiz.

-Lazkaoko ikastolak premiak izan baditu; baina betiere, inguru euskaldun batean, Nafarroa hegoaldean edo Arabar Errioxan ikastola aurrera ateratzea baino errazagoa izango da.

- Guk esaterako La Pueblako ikastolarekin harreman handia daukagu. Ikastola honek badaramatza 20 urte baino gehiago hango ikasleak irailan hemen hartzen euskara indartu eta sustatzeko. Ezagututa Errioxa edo inguruko ikastolatan duten egoera eta gurea, uste dut ez dagoela alderatzerik. Haiena militantzia da, han euskararen beharra sortu egin behar da. Hori hemen integratuta daukagu, hemen euskararen beharra edo elebiduna izatea nahiko asumituta daukagu. Han oraindik horren beharra deskubritu eta euskal sena bulatzatu egin behar da. Han lan izugarria dute; eta egoera oso ezberdinetan gaude.

- San Benito ikastolak 40 urte betetzen ditu aurtengo. Bide luzea egin du orain arte, baina oraindik ere bide luzea izango du aurretik.


- Lazkaoko ikastolak 40 urte betetzea nik uste dut notizia oso ona dela; horrek esan nahi du herri honek sinistu egin duela proiektu horretan. Zailtasun pila bat izan ditugu bidean, ikaragarriak, eta nik esango nuke, bere txar guztian, orain ikastola egoera nahiko duin batetara iritsi dela. Urtetan ikastolak eskatu egin dio Lazkaoko herriari eta orain itzultzen ari da: hezkuntzaz gain, abesbatza, hizkuntza akademia eta beste hainbat zerbitzu eskaintzen dizkie lazkaotarrei. Eta aurrera begira zer? Aurrera begira etengabe, ikastolak bizi-rik jarraitu behar du Lazkaoko herrian, garaian garaiko egoerari aurre egiteko gai izanez.

Jose Mari Goenaga zine zuzendari ordiziarrek hainbat sari jaso ditu "Suspentsea ardatz nagusitzat duen istorio bat osatu dut 'Tercero B' film laburrean"

Jose Mari Goenaga ez da oso ezaguna goierritarren artean, sustraiak hemen dituen arren. Ordiziarra da jaiotzez, baina hamalau urte zituenek geroztik Donostian bizi da. Han Enpresaritza ikasketak egin zituen, baina Urnietako zine-eskolan bukatu zuen. Bertan ezagututako lau lagunekin 'Moriarti' izeneko taldea sortu zuen, eta horren emaitza izan da hainbat sari eta aipamen jaso dituen 'Tercero B' izeneko film laburra.

Film labur horri emandako aipamenak kontutan izanda, guztira 35 sari jaso ditu Goenagak. Azkenak, Logroñoko 'Actual' lehiaketan eta Irun-go jaialdian jasotakoak. "Oso gustura eta pozik nago film laburra hau edukitzen ari den harrerarekin. Eta pozik baita ere, film laburrak ikusi ahal izateko zirkuitu bat sortzen ari delako. Niretzako gure lana zirkuitu horren barnean ikustea sariak bezainbeste balio du", azpimarratu zuen.

Martxotik hona Euskal Herriko hainbat aretotan egon



Jose Mari Goenagak 'Moriarti' izeneko konpainia sortu du beste lau lagunekin, eta zinemaren munduan proiektu berriei ekiteko asmoa duela azaldu digu.

da ikusgai 'Tercero B' film laburra, batez ere Eusko Jaur-laritzak Euskal Zinema sustatzeko sorturiko 'Kimuak' programaren barnean sartu delako. "Trailean sartu gintuzten programa horretan. Momentuz, Euskal Herriko hiriburu gehienetan egon gara, eta espero dugu nazioar-tera ere pixka bat zabaltzea", adierazi digu Goenagak. Ordura arte, Espainiako hainbat jaialditan txunditu ditu ikus-entzule eta epaimahaikideak.

25.000 eurotako filma

Film labur honek izan duen arrakastaz galdetuta, Goenaga umil agertzen da. "Egia

esan, ez dakit zer ikusi dioten. Muntaiarekin hasi ginenean akats pila bat zeudela ohartu nintzen, eta nola edo hala konpondu beharra zeuden akats horiek. Hala ere, azkenean, produktu duin bat osatu dugulakoan nago; bai musika aldetik, argazkien aldetik zein aktoreen aldetik".

Blanca Portillo, Ramon Agirre eta Maribi Bilbao dira 18 minutuko film labur hone-tako aktoreak, eta guztira 25.000 eurotako kostua izan du. "Hasiera batean guk jarri genuen diru guztia, baina lortutako sariekin jarritakoa berreskuratzea lortu dugu", adierazi du. Haren esanetan,

kontatzen den istorioak era-gin du 'Tercero B' film labur-rak harrera ona izatea. "Bixiki bat kontatu zidaten behin. Hondartzara bainua hartzera joan zen emakumez-ko bat da protagonista, eta bakarrik joan zenez, gizonez-ko bati utzi zizkion arropa guztiak, etxeko giltzak eta kartera tarteko. Nonbait, gi-zonezko hori medikua zen, eta azken orduko zeregin bat sortu zitzaionez, emakumez-koaren traste guztiekin alde egin zuen", zehaztu zuen. Hortik aurrera suspentsea ar-datz nagusitzat duen lan bat osatu zuela dio Goenagak.

Hastapenak eta aurrera begirakoak

Goenagak Enpresaritza ikas-ketak egin zituen Donostian, baina zinema betidanik gus-tuko izan duela aitortzen du, "batez ere ikusle bezala". Hala, Urnietako Saroben zine ikastaro bat egitea erabaki zuen, eta handik etorri zi-tzaion 'Moriarti' izeneko pro-duktoa sortzeko ideia. Eus-kal Herrian, film laburrei da-gokionez, gauza txukunak egin direla azpimarratzen du, baina film luzeak egiteko au-kerak eskasak daudela aitort-zen du. Hala ere, ez dago geldirik, eta eskuartean beste proiektu batzuk badituela dio.

SEGURA IRRATIA

F.M. 89.2

**EGUNEKO
24 ORDUAK
ZUREKIN**

TXIMA'S

ILEAPAINDEGIA

Zatoz eta aurkitu zure estiloa

Tratamenduak

Koloreak

Korteak

Moldeatuak

Oriamendi kalea, Etxuri etxea

ESTETIKA ZENTRUA

Biodepilazioa:

Zirukulazioarentzat onuragarria

Ilea ahultzen du

Azala garbitzen du

Aurpegiko tratamenduak

produktu naturalekin

BEASAIN Tel./Faxa: 943 88 32 52

Maidar Urretabizkaia Aterpe pintura lehiaketa irabazi du: "Nire eraikuntza pertsonala irudikatu dut"

Beasaingo Aterpe tabernako XI. Pintura lehiaketa irabazi berri du Maida Urretabizkaia lazkaotarrak. Guztira 30 artista aurkeztu ziren sariketara, eta lanen kalitate handia azpimarratu zuen epaimahaiak. Mainerrek pozik hartu du sari berri hau, eta pinturatik bizitzea zaila dela aitortzen badu ere, espresibide horri lotuta lanean jarraitzeko asmoa azaldu du.

Zer suposatu du zuretzat Aterpe saria irabazteak?

Batez ere izena. Hau da Goierri mailan antolatzen den gisa honetako lehiaketa bakarra, eta egia esan, poz handia hartu dut.

Sari guztiek eragiten dute ilusioa, baina azken hau berezia izango da, ezta?

Bai. Sari guztiak ezberdinak dira, baina hala ere, guztiek egiten dute ilusioa. Momentuak ere asko esan nahi du: ezer irabaztea espero ez baduzu, sari bat jasotzeak ilusioa egiten du, baina espero duzunean, bada...

Nolako lana aurkeztu zenuen?

Eraikuntza bat zen. Obretan erabiltzen dituzten koloreak



jarri nizkion: paretak irudikatzeke zuria erabili nuen, minioa adierazteko laranja erabili nuen... Morea ere sartu nuen eta gero estrukturekin jantzi. Azken batean, lan honekin nire eraikuntza pertsonala irudikatu nahi izan dut.

Lan originala, beraz?

Bai, behin ere ez dut horrelakorik egin, ez baitut gai hori sekula landu.

Horrelako lehiaketak jende gaztearentzat beharrezkoak direla iruditzen al zaizu?

Bai, nire ustez bai. Artista gazteek nonbaitetik hasi beharra daukate, eta hastekotan, egokienak lehiaketak dira. Horrez gain, jendea ezagutzen hasten zara, beraien obrak ikusten dituzu eta bide batez, mundu honetan murgiltzen hasten zara. Goiart sariketak-eta oso ondo daude, ez baitira bakarrik pinturara mugatzen, eta ikus-entzunez-

koak eta egiturak ere ikusteko aukera egoten da.

Lehiaketez gain, ez al dago eza-gutzera emateko beste biderik?

Zaila dago kontua. Zuk sartu behar duzu tokietan muturra, jendea ezagutzera zuk jo behar duzu... Laguntzarik ere ez dago, Goierri behintzat ez, eta Gipuzkoan ere ezer gutxi.

Goierri ba al dago arte munduarekiko kulturarik?

Ez, Goierri ez dago mundu honetan sartuta, Ordiziako Barrena Kultur Etxea da bakarra. Lan handia egiten ari da, eta kanpoko jendearen obra asko ekartzen ditu. Hala ere, kultura hori guk sortu behar dugula iruditzen zait, zeinek egin behar du bada bestela! Artea jendeari erakusteko espresibide bat da, bertsolaritza bezala, eta horregatik, nik nahiago dut tabernetan jartzea erakusketak, jendeak errazago ikusten baititu. Kul-

tura hori sortzeko bide egokia dela iruditzen zait.

Erakusketak jartzeko aukerarik izaten al duzu?

Bai, aukerak badaude. Beasainen esaterako, urte hasieran zerrenda bat egiten dute eta Aterpe tabernan, berriaz, lehiaketan parte hartu dutenek urtean zehar erakusketak jartzeko aukera izaten dute.

Eta erakusketetan jendearen erantzuna nabaritzen al duzu?

Bai, bai. Gaur egun, adibidez, abstraktua modan dago, eta batez ere, etxebizitza berrietan sartu den jende gaztearen aldetik enkargu batzuk jaso ditut. Paisajismoa ere landu dut, baina ez zait hainbeste gustatzen.

Lehenengoa Lazkaon jarri zenuen, ikasle garaian. Harrezkero zertan aldatu da zure pintura?

Dena. Sekulako eboluzioa. Hasteko, gauzak egiteko garaian beldur gutxiago dut, eta koloreen manejoan garapena handia izan da. Espresatu nahi dudana errazago espresatzen dut orain.

Zer asmo dituzu aurrera begira?

Egunen batean gustatuko litzaidake pinturatik bizitzea, baina badakit ezinezkoa dela. Hala ere, tallerren bat-edo jartzea gustatuko litzaidake, bertan ikastaroak eman eta nire lanak eta enkarguak egin ahal izateko.

JOAKIN ALDANONDO GARAJEA

MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak, alineazioa, aluminiozko llantak filtroak, olioak, engrasea frenu pastilak, tubo eskapeak, bateriak harezko txorrotadak

Errota Poligonoa

IDIAZABALgo sarreran

943 18 72 57



Lirain

Lurrindegia eta opari gaiak

San Inazio, 14 943 889 390 BEASAIN
Garagartza pl., 1 943 805 327 ORDIZIA

ZINEA

ITSASONDO:

Urtarrilak 24: 'La quimera del oro', 22:00etan, Ertotxen.

LEGORRETA:

Urtarrilak 23: 'Hable con ella', 21:30ean, Herri Zineman.

Urtarrilak 30: 'Traffic', 21:30ean, Herri Zineman.

GOIENIZ:

Urtarrilak 30: 'La boda del monzon', 21:00etan, Usurbe antzokian.

GOIENIZ

'La boda del monzon'

Mira Nair (India. 2001)

Filmak 5 pasarte ditu, bakoitza amodioaren gorabehera desberdinen inguruan, eta gizarte-maila, kultura, nahiz moral arazoak ikutuko ditu bertan. Ezkontza aurreko prestaketa burrunbatsuan zehar familiaren itxaropenak, beldurrak eta konturik ezkutenak azaleratuz doaz. Delhi hiriaren irudi liluragarriak eta bero hezeak eragindako giro itsaskorak istoria bera ere kutsatzen du.

bertsoak

BEASAIN:

Urtarrilak 25, Beasaingo Garin auzoan bertso bazkaria Aitor Sarriegi, Ekaitz Goikotxea eta Iker Zubeldia bertsolariekin.

antzerkia

ZALDIBIA:

Urtarrilak 17, Beasaingo Errail taldearen 'Gurasoak nork nahi ditu' antzezlan, 22:15ean, Zaldibiako Antzokian.

Urtarrilak 24, Ordiziako Urrup taldearen 'Susie' antzezlan, 22:15ean, Zaldibiako Antzokian.

musika

BEASAIN:

Urtarrilak 24, Sin Red talde goierritarraren kontzertua Mallutz tabernan (lehengo Teiden), 22:45ean.

IDIAZABAL:

Urtarrilak 24, 'Sorkun' taldearen kontzertua Igarondo pilotalekuan.

Urtarrilak 25, Akelarre musika taldearen kontzertua, gauean, plazan.

GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Jauregi

(Santa Maria, 2 - Ordizia). 943 160949.

Urtarrilak 18-19: Lurnaga

(Kale Nagusia, 4 - Ordizia). 943 881828.

Urtarrilak 25-26: Azpilikueta

(Kale Nagusia, 18 - Beasain). 943 880152.

IKASTEK AKADEMIA

Joan Iturralde, 5 BEASAIN
☎ 943 160 120

ESKOLA LAGUNTZA

- ✳ Lehen hezkuntza, DBH
- ✳ Batxilergoa
- ✳ Modulak, Zikloak
- ✳ Unibertsitate-maila

GOIERRIKO UNIBERTSITATEA

- ✳ Marrazketa teknikoa
- ✳ Fisika
- ✳ Matematika
- ✳ Teknologia

TAILERRAK

- ✳ Ortografia, Idazmena
- ✳ Irakurmena, Ulermena
- ✳ Matematika, Kalkulua

IKASKETA ARAZOAK

- ✳ Atentzioa
- ✳ Ohiturak, Metodoak
- ✳ Emozioen kontrola

www.ikastek.net
ikastek@ikastek.net

GERTU abokatuak



- ▶ AHOLKULARITZA JURIDIKOA
- ▶ ENPRESA ZERBITZUAK
- ▶ ASEGURUAK

BEASAIN

gertu.asesoria@terra.es
www.gertuasesores.com

Kale Nagusia, 2
Telf: 943 16 21 92
Faxa: 943 88 36 33

INAUSTI



KARROZERIA

N-1 errepidea, lurre auzoa
☎ 943 88 43 01 OLABERRIA



Berogintza
Iturgintza
Gasa
Klimatizazioa

Tel.: 943 161 277 Faxa: 943 160 933

Nafarroa Etorbidea, 27

BEASAIN

Tailerra: Okorro, 6 - ORDIZIA

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



kutxa
zuri esker

gizarte ekintza

Neguko I. Bertsopaper Lehiaketa antolatu du

Beasaingo Arrano Kultur Elkarteak

Beasaingo Arrano Kultur Elkarteak Neguko I. Bertsopaper Lehiaketa antolatu du, Bertsoaren Beasaingo lagunak taldearekin batera. Lehiaketa hau bi talde edo adinetan banatu dute: A taldean, 2003an 18 urte baino gutxiago beteko dituztenak daude, eta B taldean 2003an 18 urte edo gehiago beteko dituztenak. A taldeko irabazleak 300 euroko saria jasoko du, eta B taldekoak, berriaz, 600 eurokoa.

Bertso jartzaileek gutxienez 5 eta gehienez 8 bertso jarri beharko dituzte A mailan, eta gutxienez 8 eta gehienez 12 B mailan. Bertsoak gai eta doinu librean jarriko dira bai maila batean zein bestean. Lanak aurkezteko epea 2003ko otsailaren 20ean bukatuko da. Orijinala eta 3 kopia bidali beharko ditu parte hartu nahi duenak.

Epaia 2003ko martxoan emango da jakitera Beasainen egingo den bertso-saioaren barruan. Lehiaketa honetan parte hartzeko interesa dutenek Beasaingo Kale Nagusian dagoen Arrano Kultur Elkartera jo behar dute.

Goienizen ziklo berria

Atzo, urtarrilak 16, hasi zen Goieniz zine klubaren ziklo berria, 'Elling' film norbegiarrarekin. Hemendik aurrera ondorengo filmak izango dira ikusgai:

Urtarrilak 30: 'La boda del monzon', Mira Nari, India.

Otsailak 6: 'El empleo del tiempo', Laurent Cantet, Frantzia.

Otsailak 20: 'Millennium mambo', Hou Hsiao-hsien, Taiwan.

Martxoak 6: 'El hada ignorante', Ferzan Ozpetek, Italia-Frantzia.

Martxoak 20: 'La comedia de la inocencia', Raoul Ruiz, Frantzia.

Apirilak 3: 'Nubes pasajeras', Aki Kaurismaki, Finlandia.

Apirilak 10: 'El viento se llevo lo que', Alejandro Agresti, Argentina. (Film kuttuna).

II. gau laburra

Urtarrilaren 10 eta 11n film laburrak eskaini zituzten Goienizkoek. Bertan ikusleen film gogokoena Aitzol Aramaio ondarrutarraren 'Terminal' izan zen. 'Tercero B', 'Basurdea' eta 'Topeka' filmek ere boto ugari izan zituzten.

Antolatzaileak gustura daude jendeak emandako erantzunarekin eta batez ere larunbatean Beasainen izan ziren Jose Mari Goenaga, Ane Muñoz, Asier Altuna eta Kepa Sojo zuzendariei eskerrak eman nahi dizkie bertara etortzeagatik.

Gaur abiatuko da 'Antzerki Garaia', Ordizia eta Beasaingo Udaletako Kultura batzordeek antolatuta

Gaur, urtarrilak 17, jarriko da martxan Ordiziako Herri Antzokian 'Antzerki Garaia' izeneko egitasmoa. Ekimen hau Beasain eta Ordiziako Udaletako Kultura Sailek bultzatu eta antolatu dute, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Euskadiko Antzerki Sarearen lankidetzekin.

Kanpaina horrek 1995eko lehen hiruhilekoan eman zituenean lehenengo urratsak. Bederatzigarren ekitaldia da, beraz. Egitasmoaren antolatzaileek iazko ekitaldiaren balorazio oso positiboa egiten dute, eta hori dela eta erabaki dute aurrera egitea. Bi helburu nagusi ditu: batetik, antzerki emanaldiak joateko ohitura galdu duen publikoa berreskuratzea, eta bestetik, publiko berria erakartzea, gazteak batik bat.

Goierriko antzerki denboraldi honen barruan zortzi emanaldi izango dira, urtariletik apirilerara; batzuk Beasaingo Usurbe Antzokian, eta beste batzuk Ordiziako Herri Antzokian. Zortzi taldek parte hartuko dute: horietatik sei Euskal Herrikoak dira eta beste bi kanpokoak. Antolatzaileen esanetan, taldeak eta obrak hautatzeko irizpidea kalitatea izan da: muntaia, lengoaiari emandako trataera, hizkuntza, konpainiaren eskarmentua eta profesionaltasuna, eta obren arrakasta, hain zuzen. Hona hemen programazio osoa:

Urtarrilak 17: Bikoteatro taldearen 'Euskara sencilloaren manifestoa' antzezlan, 22:15ean, Ordiziako Herri Antzokian.

Urtarrilak 31: Hika taldearen 'Ai ama' antzezlan, 22:15ean, Beasaingo Usurbe Antzokian.

Otsailak 7: Kanpingags taldearen 'Biblia osoa gutxi gora behera' antzezlan, 22:15ean, Ordiziako Herri Antzokian.

Otsailak 21: Markeliñe taldearen 'Puntu ta buztan' antzezlan, 22:15ean, Beasaingo Usurbe Antzokian.

Martxoak 7: Vaiven taldearen 'A cuentas con Murphy' antzezlan, 22:15ean, Ordiziako Herri Antzokian.

Martxoak 21: Tanttaka taldearen 'Ekaitz txorien eskua' antzezlan, 22:15ean, Beasaingo Usurbe Antzokian.

Apirilak 4: Bucanero taldearen 'Jansel y Ponsel' antzezlan, 22:15ean, Ordiziako Herri Antzokian.

Apirilak 11: Animalario taldearen 'Tres de mercancías' antzezlan, 22:15ean, Beasaingo Usurbe Antzokian.



AUSGEGI

Urdaneta, 41

©-Faxa: 943 88 95 76

ORDIZIA

- ✳ Tximini eta egurrezko ekonomikak
- ✳ Berogailuak
- ✳ Iturgintza
- ✳ Zeramika erakusketa
- ✳ Bainuko altzariak
- ✳ Erreforma osoak



Etxebizitzak

salgai

➔ Benidorn-en etxebizitza salgai. Hondartzatik 300 metrora. 2 logela eta sukalde-egongela. Igogailua eta aire ego-
kitua. 696413165.

➔ Ordiziako Urdaneta kalean etxebizitza salgai. Bi logela, egongela, komuna. 943885664.

➔ Donostiako gelto-
kiaren ondoan dagoen
pisu bat salgai. 130 me-
tro koadro. 605764355.

➔ Ordizia erdian pisua
salgai. Hiru logela,
egongela, sukaldea eta
bainugela. Kanpoaldera
ematen du. 653709587.

➔ Ordizian pisua sal-
gai. Bi logela, egongela,
sukaldea eta bainugela.
943161735.

➔ Lazkaon pisua sal-
gai. Herri erdian, plaza-
ren ondoan. 943881627.

konpartitu

➔ Gasteizen pertsona
bat behar da pisua kon-
partitzeko. Bakarkako
logela eta berogailu
zentrala. 637990159.

errentan eman

➔ Urbasako mendile-
rroan etxea alokatzen
da asteburu, zubi eta
oporretarako.
943533981.

errentan hartu

➔ Etxebizitza behar
da errentan Lazkaon
edo Ataunen.
652741068.

Garajea

salgai

➔ Beasaingo Erauskin
kalean 100 m²ko gara-
jea salgai. Prezio inter-
resgarria. 630931449.

Negozioa

salgai/alokairuan

➔ Sagardotegia aloka-
tzen da jubilaria-
gatik. Bezero finkoa. Errendi-
mendu ona. Pertsona ar-
duratsua eta esperien-
tziaduna eskatzen da.
Informazio pertsonala.
676049931

Animaliak

salgai

➔ Larre behi limousin
eta mestizoak salgai.
943593157. Agustin.

opari

➔ Tekel arrazako za-
kur gaztea opari.
943161828.

Bestelakoak

salgai

➔ Hiru akumuladore
berogailu salgai, berri
berriak. Erdi prezioan.
656723688.

➔ Egurrezkoa sukal-
dea salgai. 652755173.

➔ Domena markako
plantxa galdaraduna
salgai 39 eurotan. Era-
bili gabea. Dendan 90
euro balio du.
658724974.

➔ Sony markako mu-
sika aparailua salgai. 80
euro. 658724974.

➔ Battle markako en-
fardadora salgai.
943593157. Agustin.

➔ Peugeot 205 GTIa-
ren lau llanta kubieta-
kin salgai. 300 euro.
606206157.

➔ Masajeak emateko
'Ekopostural' markako

kamila salgai. Berr-be-
rria, 70x182 cm.
687865494 (Aitziber).

➔ Erabilitako paletak
salgai. 943885950.

➔ Sutarako egur iha-
rra salgai. Bi metrora
moztuta. 943723504.
Iluntzetan deitu.

➔ Garbiketak egiteko
desbrozadora salgai.
943800174.

➔ Errezil sagar ekolo-
gikoa salgai. Oso ona.
Mutiloa. 943160986.

➔ Egurrezko sukaldea
salgai, Wamsler marka-
koa. Bi urte, berri-be-
rria. 943180020. Gaue-
tan deitu.

➔ Bi ordenagailu sal-
tzen dira (Pentium III)
bat grabadorekin eta
bestea inpresorekin.
Ondo zainduak. Prezio
interesgarriak.
943800193 /
639638939. Leire

➔ Gaueko tarifarekin
kargatzeko bi bero aku-
muladore elektriko sal-
tzen dira. 943027962

➔ Acesol A-II radia-
dore termoelektrikoa
salgai. Batere erabili
gabea. 8 urteko garan-
tiarekin. 240 euro.
600432352/943084375

➔ Kalefaziozko erra-
diadoreak salgai, burdi-
nezkoak. Oso ongi zain-
duak, egoera onean.
943801198

➔ Drimcast konsola
salgai. Bi mando, visual
memory eta joko ugari.
Prezio onean. Iker.
647832448.

➔ Snowboard ohol be-
rria salgai. Free-ride
modelo. Rossignol
etxekoa (1,60en neurri-
koa). 943085974
(eguerdian deitu).

opari

➔ Bi ohe turkiar eta bi
ohe-horma. 1,80 x 0,90
neurrikoak laurak.
943450697.

galdutakoak

➔ Aizkoate azpian
Peugeot markako auto
bateko giltzak aurkitu
dira. Lazkaoko Udaleko
bulegoetan galdetu.

Ibilgailuak

salgai

➔ Citroen C-15 diese-
la salgai. SS-AV. La-
gundutako direkzioa.
667809974.

➔ Ford Fiesta XR2
autoa salgai. Ekonomi-
koa. 943886506. Gauez
deitu.

➔ Derbi Senda-R mo-
toa salgai. 1998. urte-
koa. Ondo zaindua, ex-
trekin. 943887913.
9etatik aurrera deitu.

KEMEN KIROLAK



Zumalakarregi, 1
☎ 943 88 51 68
ORMAIZTEGI



ZEGAMA OKINDEGIA

*Eskuz egindako
ogi naturala*

☎ 943 80 10 66
Olaberria Kalea, 6 ZEGAMA

SALMENTA PUNTUAK:

Beasainen: Montoia harategia, Erosle, Oskarbi,
Haritza, Osiña.

Ordizian: Altamiran, Martina Bustuntzan,
Osasun belardenda, Muño denda Urdanetan

Zegaman: Kooperatiba, Maria Jesusen denda,
Arrondo.

Segurako Erosle, **Idiazabal**go Ahizpak eta
Ormaiztegiko Iñaki Erosle.

➔ Renault Espace furgoneta salgai. Diesela. SS-AK. 943886461.

➔ Peugeot 306 autoa salgai. 1.8 injekzioa. SS-BC. Automatikoa. 652762479.

➔ Volkswagen Golg GTI autoa salgai. SS-AJ. Prezio interesgarria. 943161587.

➔ Kroseko motorra salgai. KX 85. 2001 urtekoa. Egoera onean. 943887369.

➔ Ergo markako karabana salgai, sukaldearekin. 2.100 euro. 669800758. Edurne.

➔ Suzuki maxi motorra salgai. Bi hilabetez erabilia. 669800758. Edurne.

➔ Volkswagen Caravel markako autoa salgai. Zortzi plazatakoa. 620256197.

➔ Opel Astra autoa salgai. 1.4 injekzioa. SS-AP. Egoera onean. 943882156. Iluntzetan

➔ Bultaco Lobito markako motoa salgai. 1999. urtekoa. 1.000 euro. 639663569

➔ Renault Safrane 2.1 TD salgai. 1993. urtekoa. Egoera oso onean. 943027222 (20:30etik aurrera deitu).

➔ Renault Espace furgoneta salgai. SS-AP. 615722521-943027285

➔ Ford Orion 1600 markako autoa salgai. Egoera onean. SS-AG. 943889072 (8etatik aurrera).

➔ Peugeot 306 markako kotxea salgai. 1.900 diesela, SS-AV matrikuladuna. Egoera onean dago. 649455990

Lana

eskaintzak

➔ Ordiziako Herriko tabernan barran lan egiteko zerbitzaria behar da. 630931454.

➔ Neska euskalduna eskaintzen da garbiketa enpresetan lan egin, pertsona helduak zaindu edota orduka lan egiteko. Idiazabal inguruetan bada hobe. 620343576

➔ Jatetxe edo tabernaren batean lan egingo nuke asteburuetan. Ostiral gauetik igandera. 653744914. Mikel. Euskalduna.

➔ Gazte bat tabernan lan egiteko eskaintzen da. 678914302. Iñaki.

➔ 18 urteko neska bat eskaintzen da lanerako, bai dنداتan, bai haurrak zaintzeko. Ordiziarra. Euskalduna. 615782184. Saioa.

eskaerak

➔ Emakume ardurasua behar da, adineko emakume bati konpainia egiteko. Kotxea beharrezkoa da. 943180159. Joxe Luis.

➔ Goierriko enpresa batek lau galdaragile behar ditu. 4-6 urteko esperientzia. Lanpostu fijoak. Interesatuak honako helbidera bidali behar dute curriculumak: Mirakontxa 4, beheak. 20.007 Donostia.

➔ Idiazabalen neska bat behar da haur bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. 679389420.

➔ Neska bat behar da Ordiziako taberna batean lan egiteko. 652722638.

Administrari laguntzaileak. Hurrengo deialdiak. Presta zaitetz 943444182.

Basozainak. EAEko Parke eta inguru naturaletan lan egiteko. Presta zaitetz 943444182.

Suhiltzaileak. EAEko parkeetan lan egiteko presta zaitetz. Eskola graduatua beharrezkoa da. 943444182.

Liburutegi laguntzaileak. Hurrengo deialdiak. 943444182.

Atezain eta Gizarte langileak. EAEko Udaletxeetan lan egiteko. 943444182.

Aireportuetako kontrolatzaileak. AENaren deialdia. Diplomatuak eta lizentziatua izatea beharrezkoa da. 943444182.

Langai

Euskal Lan Zerbitzua
Eusko Jaurlaritza

Lan eskaintzaren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.

Goierriko Herrien Ekintza

943 884 401

ERREMINTARIA

Tolosaldean. Erref. 92486/2

GALDARAGILEA-SOLDEATZAILEA

Hernanin. Erref. 89459/2

ELEKTRIKARI TEKNIKARIA

Hernanin. Erref. 92405/2

KAMIOI GIDARIA

Donostialdean. Erref. 90472/4

LAU ELEKTRIKARI

Donostialdean. Erref. 91994/3

AUTOESKOLA IRASKALEA

Donostialdean. Erref. 93187/2

ERREGIDOREA

Donostialdean. Erref. 93347/2

SUKURTSALEKO ZUZENDARIA

Gasteizen. Erref. 92761/5

OPTIKOA

Gasteizen. Erref. 93678/3

Hegaldietako zerbitzaria. Ingelera jakitea beharrezkoa da. 943444182.

Autoeskolako irakaslea. Deialdiak berehala. Diru-sarrera onak. 943444182.

Kutxetarako laguntzaileak. Hurrengo deialdiak. 943444182.

Garraiolariak. Lor ezazu titulua. 943444182.



**Abokatuak
Enpresen
asesoria eta
gestioa**

e txekin

www.txekin.net

Etxebizitzen salmenta:

Legorreta
Beasain
Orendain

Tel/Faxa: 943 162 393 e.posta: zuzenki@euskalnet.net Elosegi, 16 LAZKAO



LADA
Ssang Yong

N-1, z/g
943 88 09 47

**ARANDIA
Garajea**

AUTOEN KONPONKETA

Iurre Auzoa
OLABERRIA



Gabiriako Pasiotarren kolegiokoak 1963-64 ikasturtean

Puska bat falta duen argazkia Joakin Etxeberria ataundarrak utzi digu. Bertan Gabiriako Pasiotarren kolegioko ikasle eta irakasleak ageri dira. Gabirian Hego Euskal Herriko 4 probintzietako ikasleak aritzen ziren, tartean goierritarrak.

Argazki zaharrak behar ditugu atal honetarako. Harremanetarako telefono zenbakia: 943889612. Argazkiak itzuli egiten dira.

Zure etorkizuna EUSKARAZ



ESKAINNTZA

EUSKALDUNTZE eta
ALFABETATZE maila guztiak, EGA.
Ikasketa bereziak eskariei egokituak.
Ordutegi zabala.
Beka sistema daukagu.
Berri gehiago, Udal Euskaltegian.

BULEGO ORDUTEGIA

Goizez: 09:00-13:00
Arratsaldez: 15:00-19:00.

MATRIKULATZEKO EPEA

Urtarrilaren 13tik 31ra
16 urtetik gorakoentzat.

BEASAINGO UDAL EUSKALTEGIA

Loinazko San Martin plaza, Kultur Etxea, 1.a • 20200 BEASAIN
Tel.: 943 028 100 • Posta elektronikoa: zuzendaritza@beasain.net



*Kanaloiak
Bajanteak
Fatxadak
Pintura
Teilatuak
Tximiniak*

...

Tfnoa.: 605 712 018
Ezkurdiategi Etxea ATAUN



ITURGINTZA - KALEFAZIOA - GASA
BAINU ETA SUKALDEKO INSTALAKUNTZAK
ETXEBIZITZEKO AIRE EGOKITUAK
BERRIKUNTZA LANAK
GREMIO GUZTIEN ARDURA



SUKALDEKO ETA
BAINUKO ALTZARIAK



BULEGOAK-LANTEGIA
USABAL, 11-A
TOLOSA
Tel.: 943 672 620



ERAKUSKETAK:
SAN FRANTZISKO, 10
TOLOSA
Tel.: 943 653 307

ANTZIZAR

KIROLAREN UDAL ERAKUNDEA

KIROLA EGITEN ARI DA



Aukeratu ezazu kirolik gusto-
koena, Antzizar kiroldegian ziur
aurkituko duzu, hala ere ez ahaztu,
bizi osasuntsu bat eramateko,
aktibitate fisikoa beharrezkoa dela.
Begira ezazu gure aukera pare-
gabea, eta bestela, eguraldiak
lagunduta, mendia, pasioak...
egiteari ez utzi sekulan.

KIROLA EGITEN ARI DIRA



www.antzizar.net

tel. 943 887900



DEASAINDU.COM